

51.
zk.

1997KO
MARTXOA


GEU ELKARTEAREN BABESAREKIN

GAZTEZ

gasteizko euskaldunen aldizkaria



FRANKEO ITUNDUA 48 / 27



Euskal Herria korrika!

geu gasteiz
ere bai!



GEU, idazte CORREOS-i

Behar bada, gaur egun, posta zerbitzuak ez du izango garai bateko garrantzia estratejiko. Lehen, ordea, telefono, fax, internet eta gainontzeko trankuluak sortu aurreko gizartean, posta zerbitzuaren kalitateak adierazten zuen herri baten aurrerapen edo modernotasuna. Egundak, azkarrago eta erosoago diren zerbitzu berriek lekua jan diote postari baina, oraindik ere, behar-beharrezkoa da; eta, horregatik, ahalik eta efikazena behar luke izan.

Aldizkari kolaboratzaile batek iazko uztailan eta abuztuan bidalitako bi eskutitz azaroran iritsi ziren gure buzoira, biak batera gainera. Gasteiztik urrun, kilometro askotara bizi den berriemate bat dugula pentsatu duzue, ezta? Bai, zera! Kolaboratzaile hori Alberto Ansola zen. Lehengo eskutitza Zarautzetik bidali zigun eta bigarrena, berriz, Gasteiztik. Baina Correosen, galdezka joan gintzaizkiernean, ez zuten galdutako eskutiz horien berririk. Eskutizena kontu hori anekdota txiki bat baino ez da, aldizkarietan bidalketen arazoarekin alderatuz. Zenbat aldiz ez ote zaigu aldizkaria berandu iritsi postariak hor nonbait utzita izan duelako?

P.D: Orain berriki jakin dudanez, Bilbora eta Hondarribira lehenago heltzen dira aldizkariak Gasteizko auzo batzuetara baino. Azken alea, esaterako, etxe batzuetan otsailaren 7rako jasoa zuten. Hau idazten ari naizenean, otsailak 20, Adurtza auzoko Olabide kalean oraindik ez dira aldizkariak banatu. Zorixarrez ez da hori gertatzen den lehen aldia.

Xabier Zabaleta

150 urte

1847. urtean sortu zen Arabako Maisuen Eskola Normala, Benigno Lacunza Jaunak Udalari aurkeztutako egitasmoaren erantzun gisa. Arabako ikastetxe honen helburua, Lehen Hezkuntzarako eskoletan behar ziren maisuak prestatzea zen. Maistren Eskola Normala, berriz, 9 urte beranduago sortu zen. Geroztik, egoera desberdin eta konplexuak ezagutu ditu Eskola Normalak: batzuetan, dekadentzia uneak, bestetan, diztirtasunak.

Gaurko egoera aztertu ahal izateko, berriz, Hezkuntzaren Lege Orokorra eta Unibertsitate Erreforma Legearen (LRU) barnean kokatu behar da. Izan ere, lege hauen bidez izen berria hartu baitzuten Eskola Normalek, OHOrako Irakaslearen Formaziorako Unibertsitate Eskola bihurtuz. Hortik aurrera, Arabako Eskola Normala, gaurko Irakaslearen Formaziorako Unibertsitate Eskola, aro berri batean sartu da.

Ikasketa plan berriak abiarazi ondoren eta lehen promozioa aurten atera denean, hainbat auzi eta irizpide gaurkotzeko premian gaude. Adibidez:

- Magisteritza Eskolako irakasleen egite profesional berria.
 - lanbide honek behar lituzkeen selezio mekanismoen falta, prestakuntza intelektualaren irizpideez gain, nortasun irizpideetan ere oinarrituko liratekeenak,
 - irakaskuntzaren errealitate praktikoari egokiago erantzuten dioten edukiak.
 - hizkun gaitasuna hobetzeko ahalegina, euskal lerroak bultzatuz eta esparru honetan dagoen eskaera sozialari erantzuna luzatuz.
- Beste esparru zenbait ere jorratzen ditu eskola honek, egunegun gehiago parte hartuz Bigarren Hezkuntzarako formazioan, adibidez, edo irakaslearen Etengabeko Formazioan, eta baita Hezkuntzaren

Juncal Duran, ARABAKO IRAKASLE UNIBERTSITATE ESKOLAKO ZUZENDARIA



Edorta Sanz

ikerkuntzan ere, Psikodidaktika doktoradutzan ikastaroak eskainiz. Aro berri honek ahalegin benetan handia eskatu digu nahiz eta ez diren, horregatik, irakasleen lan baldintzak edo baliapide materialak bereziki hobetu. Azpimarra dezagun, alde horretatik, euskal lerroak abian jartzeko, burutu eta mantentzen den ahalegin eskerga: ez dira gutxi azken urte hauetan beren burua euskaldundurik, ikasgai berriak euskaraz prestatzeko lanari ekin dioten irakasleak, ia beti, materiale eskasia gorria pairatuz. Honela gaur egun, zerbait bagara baina euskaraz ematen den irakaskuntza ez da oraindik nahi genukeenaren adinakoa: dagoena indartu, eta Etengabeko Formazioa, zein Doktoradutza ikastaroetara ere iritsi nahi dugun. Datorren 200. urteurrenari buruz, lan baldintza hobeak etorriko direlakoan gaude, eta horrekin gure irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntza. Gaurkoz, lerro hauen bidez omendu nahi izan dugu, Arabako bizitzan jokabide erabakiorra izan duen instituzio hau. Iragana eroriz joan zaigu, baina Pablo Nerudak dioen bezala, urrats berdez etorriko da etorkizuna: inork ez du egunsentiaren ibaia geldiarazten.

KOLABORAZIOA

hilabetekada

**ka
rra
ko
rri
ka**

**KORRITU BAI,
BAINA...
ZIURTASUNEZ**



Aitziber Iriondo

1997ko martxoa

2

geu idazle, xabier zabaleta
kolaborazioa, juncal duran
komikia

3

bertsoak, pablo pagegi

4

kalea mintzo: H₂O

5

zurrunmurrak eta xuxurak

6

ARABA, 7. ALABA:

Arabian zehar

Langraitzeko zeharbidea

8

Gasteiz: berri-berriak
labur-laburretan

11

ERREPORTAIA BEREZIA:

intsumisioa Kode Penal
Berriarekin

15

KULTURA:

10. korrika

Kultur Agenda

19

Martxoak 8: Arrazoi ugari
burutikan jarraitzeko



pablo pagegi

Aide Zaharra da Hegoaldetik
Iparrera pasatzeko
Francia edo Paz kale horiek
Erdi-aldera hurbiltzeko.
Hainbeste kotxe ibili ohi denez
badut zerbait galdetzeko
ez ote dugun askoz hobea
arazoa konpontzeko
kotxea etxean utzi eta hankak
erabili mugitzeko



X asier pz. de karkamo

Semaforoak beti izan dira
hartzekoak aintzarotzat
Gasteizen zehar mordoa dira
gehiegitxo batzuentzat
gorrian alto berdean segi
horrelaxe da denontzat
baina Gasteizen denok berdinak
ez garela uste dut behintzat
noizko ipini semaforoak
polizien furgonentzat

Skalextrisa Zaramagan da
bota edo ez bota zalantza
ditzozko OTA eta isunekin
ugari saltsa ta dantza;
orain tranbia egin nahi dute
Bilboko metroaren antza
Metro askotako Cuerda daukagu
ta nik badut konfiantza
geure tranbia ibiliko da
aurrera ez atzerantza

22

MUSIKA:

S.A., punta-puntan

Hileko xe-de-a

24

Burunburu Komina doktorea

25

Almudena Cid: "Sydney da
orain nire xede nagusia"

28

Haurrak: urte berria, ipuin
berria

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE
MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO, DAVID ALVEZ,
EDU LOPEZ DE LUZURIAQA, ASIER PZ. DE KARKAMO

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO, ASIER PZ. DE KARKAMO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

IRIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU, ASIER PZ. DE
KARKAMO

KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE KASTRESANA, IAKI
GAUNA, TXABI ARNAL GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAQA, OJATI)

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

GEU Elkartearen
babesarekin

5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

bererent akofan

Kalea mintzo

H₂O

NEURRI BERRIAK URAREN KALITATEA HOBETZEKO

1.º KALITATEZKOA IRUDITZEN AL ZAIZU EDATEN DUZUN URA?

2.º NAHIKOA EGITEN AL DA URAREKIN SOR DAITEZKEEN ARAZOAK KONPONTZEKO?



GURE PLANETAKO ur guztiaren %94 itsasoetan dago eta, beraz, ur gazia da; gainontzeko %6 soilik da ur geza. Ur gezaren zati garrantzitsuena lurrazpiko ur eta glaziareetan pilatuta dago. Argi dago, hortaz, ibaietan, iturrietan, urtegiatan eta lakuetan ikusten dugun ura ez dela batzuek uste bezain ugaria eta, berau behar-beharrezkoa dugu. Azken boladan neurri berriak hartu izan dira Zadorrako urtegiatan, bildutako uraren kutsadura ekiditeko eta kalitatea ziurtatzeko. Gasteizek, kalitatezko ura eskaintzen omen du, baina, hala ere, asko dira iturriko ura edaten ez dutenak. Horren ordez botiletako ura edo Gasteiz inguruko iturburuetakoa kontsumitzen dute.



Javier Aldekoa
IKASLEA

1.º Nire ustez etxean jasotzen dugun urak kalitate ona du eta horregatik iturriko ura edaten dugu normalean.

2.º Ez dakit zer esan, egia esateko, uraren inguruko gai hori ez baitut menperatzen.



Miren Aristondo
ADMINISTRARIA

1.º Ez zait kalitate handikoa iruditzen. Lixiba usaina hartzen diot askotan. Dena den, guk iturriko ura edaten dugu.

2.º Baliteke nahikoa ez izatea. Izan ere, hartzen diren neurri gehienak momentuko arazo konkretu bat konpontzeko izaten dira.



Antonio Delgado
JUBILATUA

1.º Nire ustez kalitate onekoa da, baina hodiak eta zaharrak direlako, auzo batzuetan, komenigarria iruditzen zait botiletako ura erabiltzea.

2.º Ona iruditzen zait hartu duten azken erabakia. Nire ustez, motor-itsasontziek debekaturik izan behar zuten aspaldian urtegiatan ibiltzeko aukera.



Estitxu Arida
SINDIKALARIA

1.º Ezin hobea iruditzen zait eta nik beti etxeko ura edaten dut. Botilako ura soilik tabernetan eskatzen dut, poteatzen nabilenean.

2.º Ezin hobea iruditzen zait eta nik beti etxeko ura edaten dut. Botilako ura soilik tabernetan eskatzen dut, poteatzen nabilenean.



Oscar Berganzo
IKASLEA

1.º Gehienetan ur ona daukagu. Batzuetan, hala ere, uraren kolorea ez da garden-gardena izaten, baina ona da.

2.º Nire ustez horrelako neurri gehiago hartu behar dira. Arrantzara joaten zirenekin hasi ziren eta orain motor-itsasontziak ere beratiak kentzea ideia aproposa iruditzen zait.



Iratxe Vaca Beitia
ERIZAINA

1.º Gure etxeko urak ez du kalitate ona, zapore arraro samarra du eta horregatik, botilako ura erosten dugu.

2.º Ez dakit neurri horiek nahikoak diren ala ez. Denon gustoa egitea ez da erraza izaten. Batzuk kentzea ulertzen dut baina behar bada ez da beharrezkoa itsasontzi guztiak debekatzeko.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana 'gutxi' **Argazkilaria:** Joseba Untzalu



GYREA

jatetxea

Konstituzio Eparantza, 10
Telefona: 24 59 33



eguneko



10, zenbaki borobila

Otsaileko Geu Gasteiz aldizkarian 50. alearen aipamena egiten nuen nire zurrumurruetan, izan ere hilabete horretan harrapatu baitzuen zenbaki hori gure euskal berriemaileak.

Gaur, ordea, beste zenbaki esanguratsu baten berri ematera behartuta naukazue. 10 zenbakia hain zuzen. "Hamar asko da" esaten dugu eta sarritan konturatu ere egin gabe.

Martxoaren 17tik 24ra bitarte datorkigu hain herrikoï eta hungigarri bihurtu zaigun "KORRIKA". Irratiz, lehendabizikoz "EUSKAL HERRIAN KORRIKA" abestia entzuterakoan, halako "Kir-kir" berezi bat sentitu nuen gorpuztuz guztian zehar.

Aurtengoak, gainera, Euskara Batua arautzerakoan zerikusit nabarmena izan zuen Arantzazuko ingurune paregabea izango du abiapuntu. Gainera hasiera horretan, bilera garrantzitsu haietako partaide eta hainbat urtetan zehar euskaltzainburu izan den idazle eta euskaltzale sutua omenduko dute: Aita Villasante hain zuzen. Bere ikaslea izanaz harro sentitu izan naiz beti.

Eta lehen "KORRIKA" bezalaxe Euskalerrri guztian zehar bi mila kilometrotik gora osatu ondoren, Bilbon burutuko du bere ibilbidea. Araba gure herrialdetik ere bide horretan barne izango dugu eta euskaltzale guztiok gaude parte hartzera behartuta.

Aparte eta batez ere "KORRIKA" berak zeharkatu ezingo dituen eskuldeak ere zirrara hori senti ahal dezaten "KORRIKA KULTURALA" antolatatu dute AEK-koek, mota guztietako ekintzez jantzita. Beraz, ez dago aitzakiarik: denok "EUSKAL HERRIA KORRIKA".

Bejondeizuela AEK-ko lagun finok. Zurrumurru hauen lerrotxoetatik, zorionak eta hor izango gaituzue. Bai, horixe!



Aro berri on!

Ezbairik gabe hau dugu azken denbora honetan izan den berririk pozgarriena. Geu Gasteiz aldizkariak ale honetatik aurrera hasiko duen garai berriari ongi etorri beroa ematen diogu eta ziur naiz euskaldun eta euskaltzaleok eskertuko dugula.

Apika izenburua irakurtzera-koan irakurleari harridura kei-nua ezarri zaio bere aurpegian. Urte zaharra amaitu eta berriari hasiera ematen diogunean erabiltzen dugun antzeko formula (sarritan pertsona batzuekin ez gogo onez) erabil daiteke une honetan Geu Gasteiz hilabetekariarekin. Iazko urte bukaeran entzun nuen lehen aldiz Geu Gasteizek eraberritzeko asmoa zuela. Berri honek benetan poztu ninduen. Beste antzeko esperientziaren bat ezagutzen dugunok (Arrasate Press agian dugu nabarmenena) badakigu honezkero zein baliogarri eta onuragarri izan daitekeen honelako komunikabide batekin harremanak (hartu-emanak) izatea euskarak egon beharko lukeen lekuan kokatzeko.

Orain arte bizitza laburra izan arren irakurle izan naizen ikuspegetik balantzea egiteko ordua dela pentsatzen dut eta ezin ukatu Gasteizen euskara hutsean argitaratzen den lehen

aldizkari honek suposatut duena euskaltzaleontzat, non eta Gasteizen, noiz eta azken bolada honetan hainbat eta hainbat aldetatik euskara auzitan jartzen ari den unean. Pozgarria izan da hilero-hilero etxean jasotzea gasteiztar euskaldunek eta euskaradunek egindako lanak, izandako nekeak eta sartutako orduak, une aproposak eta eskasak gaundituz. Arestian esan bezala esku artean dugun kume bat da. Eta kumeei egiten zaie moduan elikatu behar zaio, ibiltzen irakatsi eta denon laguntza behar du. Lortuko al dugu GEUre aldizkariak heldutasuna izatea? Helburu hau lortzea denon eskuetan dago, bai irakurle, bai kolaboratzaileen artean. Honegatik telefonoz deia jaso nuenean laguntza eske aro berri honi hasiera emateko ez nuen inongo zalantzarik izan.

Egiaztatzea gure hirian gero eta euskaldun gehiago dagoela eta gero eta jende gehiago erronka honetan dagoela murgildurik (egitan txapela kentzeko modukoa) atsegin zait. Egoera aldatzen ari da eta onerako nire ustez. Belaunaldi berriengan itxaropen handia daukat. Hala ere joera baikor honek ez gaitu loak hartu behar. Etorkizunari begira egunerako lana geratzen zaigu eta hau da behar bada gauzarik zailena.

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

axular
LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



raba

Langraitz: herri zatitua

Oso gutxi dira Arabako herrialdeetan barrena 'trabesiak' mantentzen dituzten herriak. Haien artean, ezagunena eta zurrrenik arriskutsuena Langraitzekoa da. Kanteraz josia dagoen herri honetatik ehundaka kamioi igarotzen da egunero bere mila eta berrehun biztanleengan, kutsadura, zarata eta arriskua sortuz.

Bisitaldiak murriztu

→ 7 eta 20

urte bitarteko
92.780

gaztek, erabili zitezuten iaz Arabako Foru Aldundiak gure

lurraldean zehar dituen lau aterpeak, 1995ean baino ia %8 gutxiagok.



Hala eta guztiz ere, datu hauek zertxobait ezkorrek badira ere, aipatu behar da adin horretan dauden

Arabako gazteen erdiak baino gehiagok (%51), erabili dituela aterpetxeak, eta Euskal Herriko beste herrialdeetatik datozenak izan direla murriztu diren bisitak. Aipaturiko aterpeak Gasteizen, Barrian, Getarian eta Zuatzako irlan ditu Foru Aldundiak.

Getariako aterpea, Gaubeako bailaran kokatua, Balderejoko Parkearen magaletan

Ekologia

Berriketak berriz Garoñan

→ Berrero ere, zabalduko ustearen kontra, Santa Maria de Garoñako Zentral Nuklearrak bere egituran berriketak egingo ditu. Zentra-leko Zuzendaritzak aspaldi azaldu zuenez, 'pizgina' handitzeko lanei ekiteko asmoa bazegoen baina ez errektoreetan sortutako hausturak konpontzekoa. Azkenean, Nuklear Segurtasunerako Kontseiluak agindutako konponketak burutuko dira.

IRUÑA DE OKA Udalerriko herriburua da Langraitz, besteak beste presondegiagatik eta lehergailuak fabrikatzeko enpresagatik ezaguna. Azken aldian, ordea, beste gai batek eraman du Añanako herri dotore hau

du Langraitzerako, bere hiribidetik pasatzen den trafikoaren arazoa ekiditzeko. Baina zeharbide honek ere, ez ditu denak kontent utzi, eta polemika sutsua altxatu da herrian. Istorioa hau da:

eskatzen. Langraitzeko hiribidetik ehundaka kamioi, haietako asko leherkariz beteta, eta Añanako beste herrietara doazen milaka kotxe pasatzen da astero, besteak beste, Jose Miguel de Barandiaran

eskolak o haurrak arriskuan jarritz. Hau konpontzeko Foru Aldundiak proiektu bat aurkeztu zuen, 'Nazional I' errepidetik herriko irteeraino doan zeharbide baten inguruko alegia. Baina zeharbide honek, herriaren zati bat zeharkatuko luke, hainbat etxe herritik at utziz.



Langraitzeko bizilagunak Aldundiaren parean eginiko protestaldian

komunikabideetara: zeharbidea. Izan ere, Foru Aldundiak zeharbide baten proiektua aurkeztu

Urte askotxo daramatza jada herriak trafikoaren arazoari aurre egin diezaion irtenbide bat

Esan ohi bezala, arazo handientzat konponbide handiak!

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA
 JOSE URUÑUELA
 KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE
 RAMIRO DE MAEZTU
 KALEAN
 HERRIKO TABERNA
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

 "SAN FRANCISCO
 JAVIER" KANTOIAN



Foru Aldundiko zeharbide proiektua etxe hauen eta herriaren artean kokatuko litzateke

600 SINADURA BAINO GEHIAGO


Zenbait Udalbatza eta Herri Batzarren ostean, eta proiektua ejekutatzeari ekin behar ziotela zirudienean, herritarrak altxatu dira, bigarren proiektu bat eskatuz, hots, herritik kanpora zeharbidea egin dezaten. Konponbidea asmatzea gaitza da: Foru Aldundiaren proiektuaren alde Iruña de Okako Alkate eta Udala daude, baina bere

herriburu den Langraitzeko Alkatea eta herria, aldiz, kontra. Esaterako, goiz bakar batean, 600 sinadura baino gehiago jaso ziren Zeharbidearen Proiektuaren aurka.

Une honetan gauza geldirik dago, Otxoa de Eribe diputatuak hilabete bateko epea eman bait zien bere proiektuaren aurkakoei beste aurreproiektu alternatibo bat prestatzeko. Baina, honetarako dirurik ez du

utziko Aldundiak, eta ez da erraza behar den kantitatea lortzea. Beraz, hurrengo asteotan erabakiko da auzia, bigarren proiekturik dagoen ala ez jakingo baitugu, eta hau hala balitz, bietako zein joko luke aurrera.

Erantzuna non izango?, ba hementxe bertan, Geu Gasteiz aldizkarian, aiparileko alean.

 **Asier Perez**
de Karkamo

GIZARTEA

Lapurretak Aguraingo Ikastolan

→ Zortzi dira dagoeneko Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastolak azken hilabeteotan jasan dituen lapurretak eta erasoak. Azkenengo erasoaldia otsailaren 15ean izan zen, eta eraso horretan, kristal bat apurtu eta Ikastolara sartu ondoren, bertako materiala zikindu eta txikitzeari ekin zioten. Ertzaintzaren ustean, gertakari hauek eta Aguraingo anbulategian eta zenbait dendatan izandakoek izan dezakete elkarrekin zerikusirik.

HEKURTZA

Kinka larrian Izarrako eskola

→ Dozenaka haurrek utzi dute jadanik Izarrako 'International College' ezaguna, azken asteotan ezagutu den bezala, eskolak mila milioi inguruko zorrak dituelako. Une honetan, egoera zaila bizi dute, bai bertan ikasten duten haurren familiek, baita eskolako langileek ere. Azken hauek, hamaika ekitaldi burutu dituzte azkenaldian, greba bat tarte, zenbait hilabeteren soldatak zor zaizkielako.

Arazoari aurre egiteko, zuzendari berria aukeratu zuen Zuzendarita Batzordeak, aurreko arduraduna dimititu ostean, baina zuzendari berriak onartu duen bezala, egoera oso zaila da, eta eskolaren etorkizuna bera kinka larrian egon daiteke. Hau guztia dela eta, hainbat gurasok beren haurrak beste eskoletan matrikulatu dituzte, besteak beste Langraitzen Aita Salesianotarrek zuzentzen duten barnetegian. Beste guraso talde batek eskola beren eskuetan hartzea ere pentsatu du.

ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a



MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
 **MULTIOPTICAS**

Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garelara eta, teknologia aurreratuenera esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1 aren garantiarekin, jakina.



IÑURRATEGITARRAK

FELIX eta Alberto Iñurategi mendizale atxabaltarrak Gasteizen izango dira martxoaren 19an 'Kangchenjunga' eta 'Shisha-Pangma 96' ikus-entzunezkoak aurkezten. Emanaldia arratsaldeko 8etan izango da, Florida Pasealekuko Kultur Aretoan.



KIKE Amonarriz Euskal Telebistako aurkezlea ere bertan. Kultur Etxean, izango da. Kasu honetan, apirilaren 4a arte itxaron beharko dute 'txiskolakerien' zale amorratuek, Amonarrizen 'euskara, umorea eta nor-nori-nork' umorezko saioa entzuteko. Esan bezala, apirilak 4ean ostiralean, izango da zita, arratsaldeko 4retan.

Zergak gaztelera hutsean igorri ditu Gasteizko Udalak

EUSKARAZ JASO ARTE EZ ORDAINTEZKO DEIA EGIN DU 'EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ' TALDEAK

Gasteizko Udalak zergak gaztelera hutsean igorri dituela eta, hauek euskaratu arte ez ordaintzeko eskatu du Euskal Herrain Euskaraz elkarteak. Legeak berak agintzen du zergen jakinarazpenak bi hizkuntza ofizialetan bidali behar direla, baina ez du horrela egin Udaleko Ogasun Sailak.

Hau dela eta, hasarre agertu dira EHEko kideak eta zergak ez ordaintzea hautatzen duten euskaldunei mezu argia bidali nahi diete: "Oraingoz aholkularitza edo asesoramendua bakarrik egiten dugu, baina arazorik suertatuz gero eta gure hizkuntz eskubideak errespetatu gabe jarraitzen badute, bide judiziala hautatzeko laguntza ere eskainiko dugu".

Arazo honen oinarrian hizkuntz ofizialen inguruko udal ordenantzak eta Euskararen Normalizatorako Legea daude, hain zuzen ere. Horien arabera, "administrazio iharduera eta ziurtagiriak, baita adierazpenak eta jakinarazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira".

Beraz, zergak ordaintzeari uko egiten duena, ez da 'biluzik' geratuko, Legeak babesten baitu kasu honetan. Euskal Herrian Euskarazek Udalak jakinarazpenak bi hizkuntzetan egin ditzan eskatu izan du behin baino gehiagotan eta, era berean, hiritar guztiek gauza bera egin dezaten animatzen ditu eta laguntza eskaintzeko prest dira.

ERREDAKZIOA

Antton Morcillo Gasteizko zinegotzia espetxeratua

HERRI BATASUNAKO MAHAI NAZIONALKIDEA DA

Herri Batasunako Mahai Nazionalako kide guztiak jaso dute jadanik epailearen aurrean igarotzeko deia eta otsailaren 18az gerotzik gartzelaratuak izan dira, atzerrian daudenak salbu.

Hauen artean, Gasteizko Udalean zinegotzi den Antton Morcillo aurkitzen da. Anttonek otsailaren 10ean deklaratu behar zuen, baina aurreko ostiralean izadako gertakizunetan atxilotua izan zen eta belauna batean eta besoan zauriak izan zituen, astebetz atzeratu zuen epaileak bere deia.

Horrela, otsailaren 18an asteartean detenitu zuen Ertzaintzak Antton, Mari Jose 'Txotxe' Anduezarekin batera, hau ere Herri Batasuneko Arabako Herrialdeko eta baita Mahai Nazionalako kidea ere.

Atxiloketak, azken hau-teskudeetan alderdi abertzaleak telebistan zeukan propagandarako dohaineko tartean ETA erakunde armatuak eginiko bideo bat emititu nahi izateagatik gertatu dira. Epaileen ustetan, banda armatuarekin kolaboratzearen delitutzat hartu daiteke Herri Batasunak eginikoa.

ASIER PZ. DE KARKAMO

ASIER PZ. DE KARKAMO

IKARI mila esker!

EUSKARAREN ALDE EGITEAGATIK SARIA EMAN ZIOTEN GEU GASTEIZI

Urtero egin ohi duen bezala, Arabako IKAK bere sariak banatu zituen iragan urtarriaren 24ean, Gasteizko Gaztetxean burutu zen "txistorradIKA" goxo eta alai batean. Jakingo duzuen, euskararen alde lan egiten duena txalotu eta kontra aritu dena 'egurtu' nahi izaten dute, beti ere

sinbolikoki, IKAREN sari hauek.

Aurtengoan, Geu Gasteiz aldizkariak, bere berrogeita hamargarren alea argitaratzen zuela eta, jaso zuen 'sari txorizoduna'. Horrexegatik, mila esker IKARI eta zorionik beroena ere, egunero daramazuen lanagatik.

Ah, portzierto! Jose Angel Cuerdak ere bere saria jaso zuen, 'txorizo mehea', kasu honetan, euskarari etengabe jarritako trabengatik. Guk, ordea, berak eginikoa barkatu eta ahaztu nahi dugu eta dei bat bidaltzen diogu gure Alkateari: "Cuerda, egin zaitetz harpide!"

ASIER PZ. DE KARKAMO



argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
 Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
 Estudioko argazkiak
 Bideo industriala
 Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
 automatismoak
 girotzeko musika
 eta segurtasuna



Matxaria, 27. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
 Faxa: 943 10 85 47 • 20600 EIBAR

Xabier

musika ona
 eta giro
 ezinhobeak **taberna**
Kutxileria 23

Teknologia berriekin aritzeko aukera

AXULAR DENDAK
INTERNET ESKEINTZEN DU

Mundu berri batean sartzen ari garela argi dago. Horregatik Axular liburutendak atal berri bat ireki du. Sail berri horretan teknologia berriak aurkituko dituzu: mul-

timediazko produktoak edota Interneten konektatzeko aukera, besteak beste. Axular dendak bere bezeroei Interneten nabigatzeko aukera emango die. Kuota bat ordainduz, bertan dauden terminalak erabili ahal izango dira.

Horrez gain, Axular dendak helbide bat du interneten nahi duenak sare hori erabiliz erosketak edo kontsultak egiteko. Bertara heltzeko helbidea honako hau da: <http://www.coverlink.es/axular>. Badakizue, beraz, euskal zibernautak!

DAVID ALVEZ



KARLOS FÓEZ, DE BETONO

Guztiok jokatzera

SAN MARTIN AUZOAN
KIROL MARATOIA ANTOLATU
DUTE APIRILERAKO

Apirilaren lehenengo astean San Martingo auzotarrak kirolari ekingo diote gogotik. Auzo horretan eta Auzo Elkarteak bultzaturik, Kirol Maratoiaren bigarren edizioa egingo baitute. Iaz hasitako esperientzari jarraipena eman nahi izan diote. Horrez gain,

aurten ere bigarren zentzu bat erantsi zaio ekitaldi honi eta, horrela, aurtengoak drogaren aurkako mezua zabalduko du.

Proba guztiak auzoko kirol egoitzan egingo dira. Bi egun iraungo dute eta kirol modalitate ugari izango dira: futbola, saskibaloia, pilota, pala, artaburuak jasotzea... Gazte eta gaztetxoei zuzendua dago, batez ere, baina edonork parte har dezake nahi izanez gero. Interesaturik bazaude pasa zaitez San Martingo Auzo elkartetik eta apunta zaitez.

DAVID ALVEZ

Gasteizek jadanik badu metro arina

OTSAILAREN 20AN JARRI ZEN MARTXAN DATO KALEAN

Otsailaren 20an jarri zen martxan Gasteizko metro arina. Ez da gezurra, ez! Hori bai, momentuz hogeitabat zentimetroko Metroa da martxan dabilena. Eusko Jaurlaritzak Dato kalean hiritarren iritziak jasotzeko egokitu duen lokalean dago metro txiki hau. Bertan, metro arina izan daitekeenak igaroko dituen kaleen maketa ikusgarria ikus daiteke eta, esan bezala, baita zentimetro gutxiko tranbia bitxia ere.

Aipagarria da, panel, maketa, eta azalpen guztiekin batera, bisitariari aukera ematen zaiola bere iradokizunak idazteko, gerokoan, Proiektua aurreratzeko orduan, kontuan hartu izateko. Honez gain,



Dato kalean Eusko Jaurlaritzak eta Gasteizko Udalak zabalduko areto horretara hurbiltzen denari, Metro Arina inauguratzen deneko lehen astean zehar erabili ahal izango den tiket bat banatzen zaio dohain.

ASIER PZ. DE KARKAMO



ASIER PZ. DE KARKAMO

Gasteiztarrek 'Txiskola' saioan

ZARAUZTARREN KONTRA
ARITUKO DIRA

Koldo Mitxelena Ikastetxeko hiru neska arituko dira datorren martxoaren 10ean Euskal Telebistako 'Txiskola' umorezko saioan. Estrainekoz izango da, gainera, orain arte ez baita agertu gasteiztarrik Kike Amonarrirek aurkezten duen *euskal txisteligan*. Adi egon beharko dugu, beraz, astelehen gauean, Gasteizko hiru neskatxen eta Zarautz

herritik joandako hirukotearen arteko lehia ikusteko.

'Gasteiz alde guztietatik'

Gasteiz alde guztietatik gida-liburua aurkeztu zuen joan den hilean Udalak. Gidak, azalpen laburrez hornitua, gure hiria eta herrialdea ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen du. Liburu honen egilea Miguel González de San Román da, eta gazteleraz zein euskarazko liburukiak kaleratu dituzte. Dendetan 1.500 pezetaren truk eros ditzakezu.

DAVID ALVEZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
ffnoa: 27 40 09
GASTEIZ

Gasteiz

ERNESTO TELLERIA

Gure hiria laster pantailetan ikusteko aukera izango dugu, egunotan, filma berri bat errodutzen ari baitira gure kaleetan.

Ernesto Telleria Gasteizen bizi den zuzendari gipuzkoarrak gure hiria aukeratu du bere filmea errodatzeko. Suerte izeneko pelikulan, beraz, Gasteizko kale eta lekuak ikusi ahal izango dugu. Gai honen inguruan, datorren hilean, Ernesto Telleriari egindako elkarrizketa eskainiko dizuegu.

AMILAMIA



Amilamia literatur aldizkari sarituak bere ale berria argitaratu du egunotan. Berton, zuzendaritzak eta erredakzio batzordeak, Amilamiaren kolaboratzaile izandako guztiak omendu nahi izan dituzte Estatu Batuetan jasotako sariagatik.

Ohi bezala, euskarak presentzia zabala du oraingoan ere, Gasteizen argitaratu baina mundu osora heltzen den literatur aldizkari honetan.

Bi gurpileko mezulari ekologikoak

'ORAINTXE' EKOMEZULARI ENTREPRESAK BERE ATEAK ZABALDU DITU GASTEIZEN

Mezulari enpresa honek paketeak, gutunak, disketeak eta bestelakoak era ezin ekologikoagoan banatzen ditu: bizikletaz hain zuzen. Azkartasuna, efikazia eta zerbitzu serio eta osoa dira ekomezulari hauen ezaugarriak nagusienak.

Asier, Fernando, Miren eta Carolina dira enpresa berri honen sortzaile eta langileak. "Horrela jantzita ikusten gaituztenean, harridura eta irribarrea sortzen diegu gasteiztar askori, baina hemendik kanpo ibilia denak badaki Europako hiri askok antzeko zerbitzua dutela. Gainera, Gasteiz oso hiri aproposa da honelako zerbitzu bat eskeintzeko. Gurea oso zerbitzu azkarra



eta fidagarria da" aitortu digute.

Euskalerriko lehenengo ekomezularien enpresa Iruñean jaio zen duela bi urte. Ondoren Donostian beste bat sortu zen eta orain Gasteizen azkenekoa. Euskalerriko ekomezulariek Oraintxe izeneko elkarte sortu dute.

Euskaldunak dira, urdin eta hori kolore biziak dituzten txirrindularien gisako praktikak eta elastikoak jantzen dituzte lanerako eta gustokoa dute bizikletaz ibiltzea. Egoitza Vicente Alexandre kalean dute eta euren mezua argia da: efikazia, seriotasuna eta azkartasuna bi gurpilen gainean.

KARLOS FDEZ, DE BETOÑO

Geu Gasteizko kidea epaitua

BI URTE LAU HILABETE ETA EGUN BATEKO GARTZELA ZIGORRA EZARRI DIOTE

Dagoeneko bi dira soldaduzkn parte hartzeari uko egiteagatik epaituak izan diren Geu Gasteizko kideak. Iaz 'Kalea Mintzo' saileko argazkilaria den Joseba Untzalu epaitua izan bazen, duela gutxi Asier Pz. de Karkamo aurkeztu zen, Ertzantzaren aurrean lehenik, eta epailearen aurrean hurreneko goizean, gaua komisarian igaro ostean.

Fiskaltzak bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra eskatzen zuen Asierrentzat, eta horixe ezarri dio zegokion epaileak. Ostera, epaileak indultoa eskatzeko aukera luzatu zion Asierri, baina honek ez zuen aukera hau onartu nahi izan.

ERREDAKZIOA

Billar Txapelketa Gasteizen zehar

LASTER HASIKO DA TABERNEN ARTEKO BILLAR TXAPELKETA (POOL 8 MODALITATEAN)

T x a p e l k e t a honetan Gasteizko taberna ugariak parte hartzen dute. Datozen lau hilabetetan guztiok guztien kontra arituko dira ekainean jokatu den finalerako txartela eskuratzeko.

Billar txapelketa hau gutxi gora-behera duela bost urte



sortu zuten taberna batzuek enpresa baten babesarekin.

Orain arte lortutako maila ona dela baieztatu digute antolatzaileek eta billarrean aritzeko zaletasuna gero eta haundiagoa dela azpimarratu dute.

Gure aldetik hauxe esatea besterik ez zaigu geratzen: garbi jokatu, tranparik ez, eta onenak

irabaz dezala.

DAVID ALVEZ

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33

GASTEIZ



ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

... eta harro nago

- KODE PENAL BERRIAK ESTRATEGIA ALDATUARAZI DIE INTSUMITUEI -

Donostiakoa intsumituen inhabilitazioari muzin egitea erabaki duen lehen udal handia dugu, baina bide berari jarraituko al dio Gasteizkoak?

Gauzak segunduro aldatzen ari dira eta intsumituek lan gaitza dute askotan estrategia berriak asmatzen ibili behar baitute.



ARRATSALDEA HOTZA

atera zen eta aspaldiko partez, haizeak ere gogor jo zuen nire aurpegia. Nekatu xamartuta eta gutxi janda, taberna batean sartu nintzen: -Ebaki bat, mesedez- eskatu nion tabernariari. 'Euskaldunon Egunkaria' barra gainean jarri eta kafea hartzen ari nintzela, bi gazteren arteko elkarrizketa hau iritsi zen nire belarrietara:

"... mugimendu antimilitaristan gabiltzanok ohartu gara, bakarrik arituz gero, ez garela gai Estatuaren strategiaren aurrepausuei aurre egiteko..." Joder! Bi intsumitu intsumisioari

buruz hizketan, eta, ni, gai horri buruzko erreportaiak idazteko bi gazteren bila. Hau zortea hau! Eurak ohartu gabe ahalik eta gehien hurbildu, grabagailua martxan jarri eta lasai-lasai nire ebakitxo hartzea erabaki nuen, Asier Arraizek eta Iñaki Saez de Ugartek nire lana egiten zuten bitartean.

ASIER: "Gizarteko beste taldeekin indarrak batu behar ditugu, gure ekintza guneak zabaltzeko: sindikatuak, Udaletako langile batzordeak, etab."

IÑAKI: "Kode Penal Berriak heriotza zibila ekartzen dio

intsumituari. Heriotza zibilak gizabanakoek ditugun eskubide batzuen ukapena dakar eta, besteak beste, lanpostu publiko batean aritzeko edo bekak jasotzeko eskubidearen ukapena... inhabilitazioa deitzen dutena, alegia".

A: "Heriotza zibilak, gainera, intsumituekiko errepresioa ezkutatzeko nahi du. Intsumitua, jadanik, ez doa gartzelera, horrek Estatuari min handia egin baitio. Intsumitu presoek gizartea hunkitu egin dute eta baita bereganatu ere. Horregatik, Estatuak errepresio sutilago bat bilatu nahi izan du

gasteiz

reportaia

Unairi, saminez

Espainiar ejerzitorea ez joateagatik gartzelaratu izan zinen. Eta gartzelak hil duen lehen intsumitua zara; ez da, ez, estatistiketan agertzeko erarik onena, Unai!

Gartzela izan da zure berrerora. Baina jakin badakite espainiar ejerzitorekin kolaboratzen duten euskal gazte denek, soldaduzkara aurkezten direnek eta ordezkapen zerbitzua onartzen dutenek, ehundaka euskal intsumitu espetxeratzearen errudun izan direla orain arte, eta hemendik aurrera zure heriotzaren, Unai, zure heriotzaren gaizkidetasunarekin bizi beharko dutela.

Beraiek goibeldu dute Euskal Herria. Beren kulpagatik negarrez datozkigu hodei ilunak, eta beren erruz ere, malkoz bete dira ibai eta erreka guztiak.

Ez dakit nora joan zaren, Unai. Ez dakit handik nire besarkadaren indarra jasoko duzun. Nire malkoak hara heltzen diren ere ez dakit. Baina jakin ezazu, Unai, jakin orainarte intsumitu izateko mila arrazoi banituen, orain mila eta bat ditudala. Eta argi izan ezazu, zinez, zure eta beste milaka euskaldunen ametsa egia bihurtuko dugula, eta garaipen hotsak eta egun berriaren argiak pozez beteko digula zure heriotzak hustu digun bihotza.

Asier Pz. de Karkamo, INTSUMITUA

Tu Invernadero
zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

bar * restaurante

Portal del Rey 9

albéniz

GASTEIZ

Uetzal

HegoAmerikako jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52

Erreportaia



intsumituentzat, gizarteak errepresioa desagertu dela uste dezan; baina hau ez da horrela."

I: "Are gehiago, errepresioa eskuz aldatu da. Lege zaharrek, errepresioa gartzelak ezartzen zion intsumituari; orain, gizarteak ezarriko dio,

bai intsumituari lanpostua ukatzen dion funtzionarioaren bidez, baita lanpostu hori lortzen duen oinezkoaren bidez ere. Askoz ere gogorragoa da Kode Berria: oinarriko eskubideak ukatzen dituelako; bestetik, errepresio suti-lagoa delako eta zigorrak hor daudela erakustea zaila dugu."

A: "Mugimendu antimilitarista sendotzea nahitaezkoa da orain. Talde antimilitarista ezberdinak elkarrekin egon beharra daukagu; gizarteak argi eta garbi ikusi behar du hori."

I: "Bai, horretarako lan oso inportantea egin da sindikatuekin, ikasleekin, unibertsitatearekin eta alderdi politikoekin, zetorren inhabili-

tazioari aurre egiteko. Orain, horrek guztiak fruituak eman behar ditu. Eta hasi dira dagoeneko lehen emaitzak heltzen: EUDIMA, Plataforma Sindikala, Donostian gertatu dena, horiek guztiak bi urte luzeko lanaren ondorio dira."

A: "Donostiako Udalak erabaki hori hartu badu, atzean presio handia egon delako izan da, bestela ez ziren holako kaka-putzu batean sartuko. Gasteizkoak, hiriburuetako udal aurrerakoiena omen denak, orain erronka inportantea dauka. Izan ere, Donostiakoa aurreratu egin zaio eta. Donostiako erabakia positiboa da eta helburua beste zenbait guneetara zabaltzea da.



Interesantea benetan. Eta gainera nik ezer egin gabe erreportaia egin didate hauek. Banekien bai, intsumituak tipo jatorrak zirela, baina ez nekien hainbesterako zenik. Ez dakit taberna honetara bueltatuko naizen, baina gaur behintzat eskupekoa utziko diet, merezita dute eta.

A. P.



MARIA JESUS
AGIRRE

EAJ

Intsumisioa delitutzat hartzearen

kontra gaude. Gai honetan gobernua gizartearen atzetik doa, gizarteak argi erakutsi baitu ejerzito profesionalaren alde dagoela. Borondate politikoa behar da hau aldatzeko. Ejerzito profesionala askoz ere garestiagoa dela argudiatuz, prozesua atzeratzea ez da zilegi. Izan ere, orain arte eginiko informe bakarra Kaliforniako Unibertsitateko irakasle batek eginikoa da eta, informe horretan, merkeagoa izango litzatekeela adierazten da.

Baina, bestalde, Donostian hartu den bidea ere ez da zuzena, horrek arazoak sortzakeelako. Intsumitu batek lanpostu publiko bat lortuko balu, lanpostu hori lortu ez duenak errekurritu egin lezake. Konponbidea Kode Penalak aldatzea da.

PATXI
LAZCOZ

PSE

Gure helburua Ejerzitoa piskanaka

profesionalizatzea zen, baina beti ere erabateko profesionalizaziora heldu gabe: batez ere garestia delako eta ejerzitoak plurala izan behar duelako. Baina orain gauzak aldatu egin dira, popularrek data bat jarri baitiote soldaduzkaren amaierari. Horregatik inozoa da orain, jaiotze dataren arabera, zehaztutako urtea baino lehen edo ondoren jaiotzeagatik, inor zigortzea. Eta honek, seguru, amnistia batera eramango gaitu. Donostiako erabakia honen guztiaren ondorioa da. Erabakia, dena den sinbolikoa da, udal batek ezin duelako ezer egin arazo horren aurrean. Indarra beste bide batzuen bidez egin behar da: Euskal Udalen Elkartearen (EUEL) edo Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioaren bitartez kasu.



ALFONSO
ALONSO

PP

Kontradikzio bat sortu da. Zerbitzu

militarraren beharrezkotasuna desagertu behar dela uste dugu, eta ahal den neurrian ejerzito profesionalaren ezartzea aurreratu. Intsumituen taldea gero eta zabalagoa da, eta jada ez da, lehen esaten den legez, ideologia zehatz bati dagokiona. Intsumisioa oso onartua dago gizartearen. Guzti honek, nahi ta nahi ez, amnistia batera eramane behar gaitu.

Orain transizio egoera batean gaude, ejerzito profesionala jada iragarria dagoelako, baina intsumisioa oraindik delitutzat hartua dagoelako; eta transizio egoerak era berezian landu behar dira. Nire ustez, ezpenalizazioa gauza logikoa da, eta horretarako epeak murriztu behar dira.

intrales




BEIRATE
ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ

MIKEL
DELIKA

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

EYSKAL OKELTA
LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

1994ko azaroaren 18an Udalak ezpenalizazioa eskatu zuen

1994ko AZAROAREN 18a zen, goizeko hamaikak inguru. Eguraldia nahasia esnatu zen eta holakoetan, aurrerago ikusiko dugun bezala, ideiak ere nahasi ohi zaizkigu gizakioi. Herri Batasunak mozio bat aurkeztu zuen. Batetik, intsumitu presoak aska zitzatela eta, bestetik, intsumisioa ezpenaliza zezatela eskatzen zuten. Eusko Alkartasunako ordezkariak baietza eman zion berehalako batean mozioari.

Gogora dezagun garai hartan PSOE zegoela Madrileko gobernuan eta egungo Kode Penal Berria, garai hartan proiektua besterik ez zela. Horrek guztiak eragina izan zuen zinegotzi sozialistaren interbentzioan, bai eta mozio alternatibo

nahasi samar bat aurkeztu zuenean ere. Unidad Alavesako kideak sozialisten alternatibaren alternatiba bat aurkeztu zuten, besteak beste, Objekzioaren Legea alda zezatela eskatuz.

Bozketerako ordua heldu zenean (bazen garaia!), eta zenbat mozio edo alternatiba bozkatu behar ziren eztabaidatu ondoren, bozkaketaren garaia heldu zen. Herri Batasunaren mozioak lortu zituen aldeko boto gehien: 21 alde eta sei kontra, sozialistenak hain zuzen; alderdi sozialistaren mozioak sei botu alde, 12 kontra eta 9 abstentzio izan zituen; eta, azkenik, U Arena bozkatu zen: 17 alde, 4 kontra eta 6 abstentzio.

JUAN KARLOS
MOLINA



HB

Marko politiko-juridiko hau

ikusirik, atera daitekeen edozein Kode Penalen aurrean, gure jarrera intsumisioarena izango da, euskaldunon eskubideak ukatzen baitira. Halere, Kode Penal Berria aztertuz, askoz ere gogorragoa dela esan behar dugu, oinarritzko eskubide ugari zapaltzen ditu eta. Intsumisioa arazo politikoa da. Gizabanakoaren eskubideak daude jokoan eta, horrek, irtenbide politiko baten premia du.

Donostiako Udalak harturiko akordioa baliagarria da. Kode Penal berriaren aurkako jarrera ez da gazteengan bakarrik utzi behar. Euskal Herrian intsumisioa globalizatu egin behar da. Erakunde guztiek, bai elkartasunez, bai jarrera propio bezala, intsumisioaren bidea hartu behar dute.



MARISOL
BENGOA

EB

Intsumituena bezalako jarrera

baketsu bat ezin da delituzat hartu Kode Penalean. Udalean proposatu izan dugu inhabilitazioari muzin egitea, baina legez kanpokoa eta arduragabekeria zela erantzun zitzaigun. Horrez gain, erakunde batek Legearen aurka ezin duela egin esan ziguten. Aurrekontuak onartu zirenean, esaterako, Kontzientzi Eragozpenaren bulegoa, Kontzientzi Eragozpenaren eta Intsumisioaren bulegoa bihur zedin eskatu genuen, baina honetan ere ezetza eman ziguten, legearen kontrako zelako. Dena den, intsumituen eskubideak errespetatu daitezkeen edozein unetan antzeko beste mozioen bat aurkeztuko balitz, gu alde agertuko ginatke.

gasteiz
Berezia

1994ko Azaroaren 18an onarturiko mozioak:

HERRI BATASUNEKO UDAL TALDEAK AURKEZTURIKOAK:

- gartzelan aurkitzen diren intsumiso guztiak aska ditzaten eskatzea.
- intsumisioaren despenalizazioa eskatzea.

UNIDAD ALAVESAKO UDAL TALDEAK AURKEZTURIKOAK:

- gartzela zigorra dakarren legedia ezabatu, intsumiso presoen indultoa eskatu eta Ordezkapen Zerbitzuaren iraupena Soldaduzkarenarekin berdindu dezan, Madrilgo Gobernuari eskatzea.
- Gobernutik kanpoko erakundeei eskatzea, ordezkapen zerbitzua etxetik gertu, eta ikasketa edo lanarekin batera egin ahal izan dadin beren programen egitura alda dezaten eskatzea.

une honetan...

- ✗ ... ehundaka intsumitu arabar epaiketaren zai daude
- ✗ ... hiru dira gartzelatik igaro diren intsumitu arabarrak
- ✗ ... dozenaka intsumituk beren aurkako atxilotze agindua daukate epaiketetara ez agertzeagatik
- ✗ ... bakar batzuek gartzela zigorra jaso dute eta atxilotzearen zai dira
- ✗ ... beste intsumitu guztiak inhabilitatuak izango dira

IRVSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

ONGI
ETORRI
KUTXI 103
GASTEIZ



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra!

35



altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Euskal Herria korrika!

geu gasteiz ere bai!



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ



Gasteizen ere korrika euskara berreskuratuz

MARTXOAREN 20ko arratseko zortzi eta erdiak inguru sartuko da Gasteizen 10. Korrika. Aurtengo edizio honek 'Euskal Herria Korrika' leloa du eta gure kaleetan barrena ibiliko den hogeikilometroetan zehar euskararen berreskurapenerako "euskaraz bizi diren euskaldunak" behar direla aldarrikatuko da.

1980an lehendabiziko Korrika burutu zenetik egotira aldatu bada ere, euskara normalizaziotik oraindik oso urrun dago eta honek "herriar guztion konpromezua eskatzen du; ez dakitenek euskara ikasiz eta dakitenek uneoro erabiliz". Honekin batera, Plangintza Orokor baten beharra ere azpimarratu behar da.

Emandako aurrerapausuak onartzearekin batera, Korrikaren antolatzailea den AEK-k esan du lehenengo ediziotik datozen ideia nagusiak indarrean jarraitzen dutela: "Euskara berreskuratzea premiazko kontua da. Ezin dugu denborarik galdu, aurrera egin behar dugu urratsez urrats, pausoz pauso, baina korrika, etorkizuna ate joka baitugu".

KORRIKA TXIKIA

Martxoaren 20an gazte eta haur ugarik Korrikan parte hartuko badute ere, gazteenek lehentxoago beren Korrika berezia izango dute. Korrika Txikia hilaren 14an igaroko da Gasteiztik. Era honetan, euskararen berreskurapena presazko kontua delako mezua adin guztietara zabaldu nahi da.

Euskara berreskuratze ahalgin honetan aipagarria da azken edizioetan Korrika Kulturala sendotuz joan dela. Honen adierazgarri gisa esan daiteke, aurtan antolatutako ekitaldi kopuruak aurreko edizioakoa bikoiztu egin duela. Gasteizen, hamar bat ekitaldi gauzatu dira orain arte eta beste hainbeste gelditzen dira

martxoaren 9an bertso bazkari batekin korrika kulturalari amaiera eman baino lehen. (Hil honetako ekitaldiak agendan dituzu ikusgai).

Korrika kulturala antolatzerakoan, AEK-k "gizartetik bertatik sortutako herri ekimenak urte luzeetan egin duen lan isil eta etengabea" omendu nahi izan du. Horrela, eskualde guztietan ekintza bereziak antolatu dira herri ekimenekin batera. Guztien artean, "euskara hizkuntza osoa, modernoa eta bizitzaren esparru guztiak betetzeko gauza dela" agerian utzi nahi da. Hau guztia argi egonik, denok euskara ikasi edota erabiltzearen konpromezuari ekitea besterik ez da gelditzen euskara berreskuratzeke.



Hiru ikastetxeek eramango dute lekukoa

Korrikaren lekukoa Gasteizen barrena eramango dutenen artean hiru ikastetxe hauek daude:

ABETXUKO IKASTOLA

Lekukoa eramango duten 4. aldia edo izango da aurtengoa. Ikastola honek bi ordezkari izango ditu: bata ikasle txikiarena; ikasle nagusia bestea. Bakoitza kilometro erdiz arituko da lekukoarekin. Hala ere, gaueko hamaikak arte, Korrika Abetxuko herrira helduko ez denez, baliteke 'Korrika Txiki' bat antolatzea herrian zehar txikienei parte hartzeko aukera emateko. Bitartean, martxoaren 20 baino lehenago, ikastolak hainbat ekitaldi prestatu ditu herria girotzeko asmoz, "Ikastolak euskararen motorra izan behar du eta".

TOKI EDER IKASTOLA

Aurreko bederatzi Korriketatik zortzitan eraman du Toki Eder Ikastolak lekukoa (zenbaitetan besteren batekin batera). Guraso Elkarteak erabakita, aurtan 6. mailako neska-mutil bikote batek eramango du lekukoa. Era honetan, Ikastolak azken kurtsoan ari diren ikasle guztiak omendu nahi dituzte. Ikastetxean bertan, Korrikaren inguruan erakusketaren bat ere antolatu nahi da euskararen "jai egun" hau prestatzen joateko.

KOLDO MITXELENA

Azken bi Korriketan egin bezala, Koldo Mitxelena Institutua diru bila aritu behar izan du lekukoa kilometro batez eramateko (ahal izanez gero Zaramaga auzoan bertan). Zeregin honetan bi bide izan dira nagusi: alde batetik, institutuko irakasle eta beste langileen artean mila pezetako bono laguntzak saldu; bestetik, ikasleentzako korrika inguruko jaialditxoak antolatu jolasorduetan. Bertan, giroa berotzeaz gain, diru-eskeak ere egin ziren. Lekukoa nork eraman zozketatu egingo da horretarako apuntatu diren guztien artean.



IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ



Korrika Kulturala: Mikel Telleriarekin kantuan

MIKEL TELLERIA kantagilea orain hamabi urte etorri zen Idiazabaldik Gasteiza euskarazko klaseak ematera. "Etorri baino lehen, Gasteiz hiri atsegina iruditzen zitzaidan eta bertan bizitzeko gogoan nuen. Banekien gauetan giro majoa zegoela". Orain, Aitor Etxeberria (gitarra elektrikoa) eta Marian Napal (teklatu eta pianoa) musikarien laguntzarekin, berak konposatu eta idatzitako abestiak eskaintzen dizkigu. 'Comtra Culture' zirkuitoko tabernetan entzun ahal izateaz gain, martxoaren 6an Gasteizko Café Daton kantatuko du Korrika Kulturalaren barnean.

Zein da zure ideia musikala?

Nirea folk-akustiko deritzana da. Oso musika lasaia da. Baina, behin hau esanda, halaber, kantu batetik bestera apurtzen saiatzen naizela ere esan behar dut.

Ba al duzu eredu musikalik?

Eredu bat baino gehiago, erreferentzia asko ditudala uste dut. Euskal musikaren historian eragina izan duten talde zein abeslari guztietatik badut halako erreferentziaren bat. Besteak beste, Ez dok hamairu, Itoiz, Ruper Ordorika, Hertzainak aipa daitezke; eta Euskal Herri-tik kanpokoen artean: Bob

Dylan, Leonard Cohen, Lou Reed (folk-etik oso hurbil dagoen rock & Rolla egiten du), Bruce Springsteen, Rem, e.a. Azken batean, danak ditut buruan. Horien eragina ez da prozesu konsziente bat izaten. Nik egindako zerbait entzuten dut eta gero bat-batean... honek gogoratzen dit ez dakit nor.

Momentu honetan, esaterako, oso gustora entzuten dut Kiko Veneno. Askok gustatzen zait, izugarri. Oso ona da. Niretzat Kikok badauka halako zera berezi bat.

Zein musika mota duzu gustokoen?

Musika asko entzuten dut eta musika mota guztiak gustatzen zaizkit. Benetan erabat irekia naiz alde horretatik. Etorritzen den musika bakoitzari bere balorea aitortzen diot.

Zure abestiaren musika konposatu eta hitzak idazten dituzu. Zerk dauka zuretzat lehentasuna: musikak ala poesiak?

Nire kasuan beti musika dago lehenengo. Niretzat bi poesia mota daude: poesia errimatua eta libre. Poesia errimatua oso argi lotuta dago musikarekin. Errima horiek sortzen dira, melodia batek erritmo baten beharra markatzen duelako.

Alde horretatik, ni beti melodiaren aldetik sartzen naiz eta testua musikari egokitzaren saiatzen naiz normalean.

Musikarik ikasi al duzu?

Ez, nik ez dut musikarik ikasi. Autodidakta naizela esan daiteke. Kontserbatoriora joan nintzen baina aspertu egiten nintzen, gaizki sentitzen nintzen. Han, nire ustez, kontzepzio oker bat dago. Niretzat musika komunikazioa da. Bi pertsonen aurrez aurreko komunikazioa bezalakoa: musikarekin ideia batzuk azaltzen ari zara. Ideia horiek, soinuaz aparte, idatzita zabal ditzakezu. Honekin esan nahi dut, irakaskuntza klasikoak garrantzi berezia ematen diola alde idatziari eta ez hainbeste ideiak espresatzeari, ideien baloreari. Nire ustez, alde horretatik, kontserbatorioek enkontsertatu egiten dute.

Norantz joko duzu zure hurrengo konposizioetan?



Folk akustiko izaten jarraituko du baina beste estilo batean, martxosoagoa izango da. Apurtzen saiatuko naiz. Hori nik neure buruari exijitzen diotan zerbait da. Gauza ezberdinak egiten ahalegintzen naiz, behintzat. Behar bada, gerta liteke instrumentu gehiago behar izatea ere. Adibidez, kantu batzuetan bateria eta bajo baten beharra ikusten dut.

Edu Lopez


de Luzuriaga

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromo (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendugimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 T.FNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Kultur



Martxoaren 16an
IGANDEA

GEUrekin
Mendira

CANALTOTIK

ORORA irteera:

- goizeko bederatzi


Ferdietan, Prado Kanean,
Txapela tabernaren aurrean
itzulera:

- hirv Ferdietan

AUTOBUSA IZANGO DA



agenda



LEHIAKETAK

FELIX UGARTE V itzulpen
lehiaketa eta

FANTASI IPUIN
LABURREN V unibertsitate
lehiaketa

antolatzailea: Euskal Herriko
Unibertsitatea.
parte hartzeko Arabako Campusera jo.

HITZALDIAK

MARTXOAREN 19EAN, ASTEAZKENA
arratsaldeko 8retan
Floridako Kultur Etxean
KORRIKA KULTURALAREN barruan
BIDEO EMANALDIA:

'Kangchenjunga eta Shisha-Pangma
96', Alberto eta Felix Iñurrategi.

MARTXOAREN 21EAN, OSTIRALA
arratsaldeko 4retan
Floridako Kultur Etxean
KORRIKA KULTURALAREN barruan
'Euskara, umorea eta nor-nori-nork:

umorezko saioa', Kike Amunarriz

DATA ZEHAZTU GABE

Landatxo gizarte etxean
'Hobe dezagun gure euskara',
Euskaltzaindiko aditu baten eskutik

MARTXOAREN 11AN, ASTEARTEA
arratsaldeko 7,30retan
Magisteritza eskolan 150.
URTEURRENAREN ospakizunen
barruan

'Euskal maisu-maistren garbiketa gerra
zibilean eta lehen frankismoan (1936-
1945', Maitane Ostolaza

MAHAINGURUA

MARTXOAREN 13AN, OSTEGUNA
arratsaldeko 7,30etan
Villa Suso Jauregian

'Euskarazko Irratigintza, NORA?':

- Mikel Bujanda (Euskal Herria Irratia)
- Patxi Montero (Herri Irratiko langilea eta Arrasate Irratiko sortzaileetako bat)
- Txema Ramirez (EHUko kazetaritza irakaslea)
- Eusko Jaurlaritzako kultura saileko ordezkari bat

antolatzailea: ARABA IRRATIA

BESTELAKOAK

MARTXOAREN 12AN, ASTEAZKENA
goizeko 11etan
Floridako Kultur Etxean
'Korrika Txikia'ren aurkezpena

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: **1.500 pzta. urtean**

Kontu korrontea:

entitatea


bulegoa

kontrol
zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Martxoak 8 reportaia

Leire Lopez de Aberastuti

Emakume
Langileen
Nazioarteko
Eguna 1907an
ospatu zen lehen
aldiz eta,
ordutik,
urteroko zita
ahaztezina
bihurtu da.
Aldarrikapen
eta jai eguna da
egun
Martxoaren 8a
eta zer oroitzen
den ahaztu ohi
da.



datak

- 1789.** Frantziar Iraultza. Emakumeen botu eskubidea aldarrikatu zen lehenengoz.
- 1857.** New York-eko ehundegietako emakume langileak manifestazioa egin zuten. Aldarrikapenak 12 orduko lan egunak izatea, lan sariak handitzea eta baldintzak hobetzea ziren. Poliziak gogor erreprimitu zuen greba.
- 1899.** Emakumeek gerraren aurkako mintegia antolatu zuten La Hayan: mugimendu bakezalearen hastapena izan zen.

IZAN ERE, emakume langilearen eskubideen aldarrikapenen hastapenetan ez dago ospakizunetarako lekurik. Duela mende bat baino gehiago, lan eskubideen aldeko protestan ari ziren Estatu Batuetako ehundaka emakume lantegian itxi ziren presioa egiteko asmoz. Bertan, giltzapeturik zeudela, sua piztu eta ehun emakume baino gehiago hil ziren lantegitik ezin irtenda. Historiak dienez, nahita piztutako sua izan zen.

Emakume horien omenez ospatzen da Emakume Langileen Nazioarteko Eguna. Hala ere, lehenagotik, XVII. mendearen erdialdean hasi eta Lehenengo Mundu

Gerra bitarteko epe horretan, emakumeen eskubideen aldeko borroka gogorra izan zen. Orduko aintzindariak emakume (botua eman eta gizarte ekimenetan parte hartzeko eskubidea) eta langileen eskubideak, bakezaletasuna, sozialismoa eta internazionalismoaren defentsarekin uztartzeko indarra izan zuten. Feministak estatu kontserbadoreen etsai bihurtu ziren: 1914an Kaiserrak Clara Zetkin feminista eta sozialista ezaguna "Inperioak zuen etsairik handiena" zela esan zuen. 1917an Petrogradoko ehundegiko emakume langileek grebarako deialdia egin eta, egun batzuetan, gizonen elkartasuna lortu zuten: Sovietar Iraultza abian zegoen.

- 1906.** Nazioarteko Langileen Elkarrekin Emakume Langileen eskubideak aldarrikatu zituen.
- 1907.** Estatu Batuetako emakume sozialistek Emakumeen Eguna ospatu zuten andre langileen eskubide politikoak aldarrikatzeko.



Ardatz

itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

Emakumeen borroka

1908. New Yorkeko ehundegietako emakumeek greba hasi zuten. 51 urte lehenago aldarrikatutakoa eskatu zuten berriro. 20.000 emakume irten ziren kalera eta 13 asteko greba gogorra izan zen. Kaleratzeak, gosea eta erasoak..., eskatutakoa lortu zuten.

1910. Nazioarteko Sozialisten Kongresuan Clara Zetkinek Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatzea eskatu zuen, lantegian itxita zeudela, sutan hildakoen ohorez.

1911. Martxoaren 8a ospatu zen lehen aldiz Alemanian, Austrian, Dinamarkan, Suiza eta Estatu Batuetan. Milioi bat lagunetik gora bildu zituen deialdiak.

1914. Emakume sozialistek Alemaniak sortutako gerra eta Rosa Luxemburg-en atxiloketaren aurkako manifestapena egin zuten. Milaka emakume hartu zuten parte. Urte horretan bakea izan zen Emakumeen Nazioarteko Egunaren aldarrikapen nagusia.

1917. Petrogradoko emakumeek grebara deitu zute. Langile guztien elkartasuna lortu zuten.



tzaion arren, Enpresan betidanik egon dira lansari taula bi: bata emakumeentzat eta bestea gizontzat. Hala ere, guk ez genekien horren alde handia zegoenik. Taulak ikusten genituen, baina portzentaletan agertzen diren zenbakiek esan nahi dutenaz jabetzea ez da erreza eta guk ez genekien, zehazki, zenbateko desberdintasuna zegoen nominetan”.

Enpresaren berregituraketak 250 langile baino gehiago jubilatu zituztenean, emakumeak jarri zituzten ordura arte gizonen egin zituzten lanak egiten. Hori dela eta, emakume batzuk “gizonezkoen” soldata jasotzen hasi ziren. “Emakumeek nominak elkarki erakusteko ohitura dugu, eta horren alde handia zegoela ikustean harritu egin ginen, batez ere, lanen arteko ezberdintasuna oso txikia delako”.

DIRU KONTUA


Lehen pausua Enpresa Komitea-rengana jotzea izan zen. “Balorzioa negoziatzen ari ziren eta, horren bidez, gure arazoak konponduko zirela agindu ziguten”. Bi urte eta gero, ordea, gauzak bere horretan jarraitzen zuten, antolatzea, ordezkariak aukeratzea eta aurrera egitea erabaki zuten emakumeek. Enpresarekin biltzea izan zen bigarren urratsa eta nagusiek emakumeek jasaten zuten egoera bidegabekeria hutsa zela onartu zuten, baina ez zuten hori aldatzeko konpromezurik hartu: Plantilaren %23 andreak dira eta diru asko zegoen jokuan.

Gauzak horrela, lan egiteko estratejiak prestatzen hasi ziren: “Momentu horretan, gizonen laguntza eskatu ala ez eztabaidatu genuen. Baina gure arteko gauza zenez, bakarrik lan egitea erabaki genuen. Egia

ESMALTACIONES San Ignacio (ESI) enpresa gasteiztarrek emakume langileak diskriminatzen dituela onartzen duen epaia eman berri du Euskadiko Auzitegi Nagusiak. Ia lau urte igaro dira emakumeek salaketa jarri zutenetik eta lau urteko lana eta borroka behar izan da “begi bistan zegoena” onartzeko. Hala ere, auzia ez omen da amaitu.

Konstituzioak emakume eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzen du, baina legearen gainera iharduteko hainbat modu erabiltzen dira Emakumeen Komisioko kideek azaldu dutenez: “1997tik aurrera, legeak horrela behartuta, izena aldatu zi-

J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin

*Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak*

esan behar bada, bestalde, borrokan aritu garen lau urte hauetan gizonak ez dute bate-re interesik erakutsi”.

Enpresa Komiteak eta bertan ordezkariak duten hiru sindikatuek laguntza ukatu zientean, LABen inguruan bildu eta Emakunde-ri laguntza eskatu zioten. “LAB eta Emakunde-ak arazoa aztertu eta diskriminazioa zegoela baieztatu ondoren laguntza handia eman ziguten: oso ondo portatu dira. Komiteak ezetza ematea, aldiz, oso gogorra izan zen guretzat, batez ere, oso arazo argia zelako. Tartean beste ezer egon balitz, tira, baina ...”.

Beraz, LABen laguntzaz salaketa jarri eta Gasteizko Auzitegiak emakumeen aldeko epaia ematea lortu zuten. Enpresa ados egon ez eta Euskadiko Auzitegi Gorenaren iritzia eskatu ondoren, epaia Gasteizera bueltatzea lortu zuten, ustez zituen hutsunak zuzentzeko. Bigarren epaiketa baten beharra izan zen, hortaz. Emakunde- enpresaren jokaera eta langileen lan baldintzei buruzko informe zehatza aurkeztu zion epaileari eta horrek aurrekoan baino epai luze eta zabalagoa egin zuen arazorik ez zizkietela jarriko ziurtatzeko. Azkenean, Euskadiko Auzitegiak ere, emakumeen aldeko epaia eman zuen.

AMAIERARIK EZ

Epaia argi eta garbi azaltzen du langileek emakume izateagatik diskriminazioa jaso

duela eta Emakumeen Komiteko kideak oso baikor daude, baina “enpresak Auzitegi Konstituzionalearen aurrean errekurtsioa jarriko duela uste dugu. Ezin dute irabazteko itxaropenik izan, baina, auzia airean dagoen bitartean, ez dute aldaketarik egin behar”.

Bitartean, diskriminagarria zelako salatu zen lansaria oraindik ere indarrean dago ESI enpresan: “Bai, eta horren aurka borrokatzen jarraituko dugu oso soldata baxua delako, egiten den lana kontuan izanda. Baina, orain, gizonak ere sartu dituzte talde horretan; beraz, borroka aldatu beharko dugu”.



Diskriminazioaren datuak

❖ **Euskal Herriko Unibertsitatearen Arabako Kanpuseko datuak:** Ikasleen %53,7 emakumeak dira eta %46,3 gizonak. Oraindik ere, gizonen zientziak eta ikasketa teknikoak egiten dituzte, batez ere, eta emakumezkoak letretakoak. Neskek langabezia tasa handienak dituzten ikasketak aukeratu ohi dituzte. Ikasketa horiek dira, gainera, emakumeek tradizioz bete dituzten lanak: irakaskuntza eta gizarte-lanarekin lotutako lanak

gehien bat. Oso gutxi dira ingenieritza ikasten duten emakumeak (%16) eta, are gutxiago, Ongizate sailean lan egiteko prestatzen diren gizonak (%13). Karrera berrietan (Dietietika, Nutrizioa...), berriz, emakumeak dira nagusi (%80).

❖ **16.163 langabetu daude Araban:** %61,8 emakumeak. Langabezia sariren bat jasotzen dutenak askoz gutxiago dira (6.364) horietatik %36,8 emakumeak dira.

❖ **Emakumeek jasotzen dute Gurutze Gorriak**

Arabian partitzen dituen laguntza lortzen %75.

❖ **Goi mailako ikasketa dutenen artean,** gizonen emakumeek baino %32,5 gehiago irabazten dute.

❖ **Emakumeek egiten dituzte** gizartearen ongizatea bermatzen duen lanaren bi herenak baino gehiago.

❖ **Delito guztietan** (hilketak, lapurretak...) zigorra larriagoa da delitu egileak familia harremanak izanez gero. Bortxaketa kasuan, aldiz, zigorra arintzen duela erabaki berri du epaile batek.

Txirotasuna eta marginalizazioa

Emakumeen txirotasun progresiboa herrialde garatuetan ere gero eta nabarmenagoa da. Baita ongizatearen aintzindaritzat jotzen den Gasteizen ere, lorategien eta Gizarte Etxeen hiriburu europarrean ere.

Arabako Diputazioaren Ongizate sailak egindako azken azterketak behintzat, hala aitortzen du. Emakume arabarren %5ek Ongizate sailaren laguntza behar du, eta andrazkoen egoera gizonena baino dexente latzagoa da.

DESABANTAILA

Azterketak dienez, iraunbizitzeko lasterketa horretan gizonen aldeko abantaila hartzen dute irteeratik bertatik. Emakume arabarrek oso formazio maila txikia dute; gizonenarekin alde izugarria dago. Ikasketarik gabeko emakume horiek zaila dute lan bat aurkitzen eta lan prekarioak baino ez dituzte lortzen. Gehienek etxeetan lan egiten dute. Lan egiten duen emakumeen %20k baino ez du produkzio arloan lan egiten.

Diputazioaren ikerketak erakusten duenez, seme-alabak euren kargu dituzten emakumeak (ezkongabeak, separatukoak, alargunak eta presoan emazteak) dira marginalitatean erortzeko arrisku gehien dutenak. Etxerik, lanik, ikasketarik gabeko eta diru sarrerarik ere ez duten emakumeak dira. Ondo ordaindutako lan bat lortzea oso zaila dutenez, txirotasunari ere aurre egin behar izaten diote.

Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeek ere arreta berezia behar dutela onartzen du Aldundiaren azterketak.

Gasteiz ongizate arloan aintzindari izateak ez ditu emakume horien arazoak konpontzen. Erakundeek laguntza eskatuta ere, bi urte baino gehiago behar dute gehienek bere arazoa konponbidean jaritzeko.

usika



Urte bat pasatu da S.A. taldeak "Ratas" izeneko diskoa aurkeztu zigunetik eta, atsedetik hartu gabe, hementxe ditugu berriro ere "Diversiones" maxi-CD berria zabaltzeko asmoz. Tituluak berak azaltzen du konpakto honen zergatia. Gasteizko taldearen azkenengo lanean bertsoak baino ez dituzu topatuko; bertso informalak, taldekideek gogoko dituzten abestiak. Hitz batean: dibertsioa.

Soziedad Alkolistarekin dibertitzeko



ko omenaldia ere bada. S.Aren azkenengo grabazioa da eta zuzenean defendatuko dugu, gainera. Horrez gain,

geu gasteiz

"Euskaraz jotzen ditugun abesti biak bertsoak dira"

geu gasteiz

S.A. taldea ez da abesti ezagunez bakarrik baliatzen hain osatzeko. Taldekideen artean hausnarketa egin ondoren, hainbat talde aukeratu zituzten bertso berriak egiteko. Besteak beste, honako hauek: B. Turner Overdrive, Oskorri, Fisher Z, Peter and the Test Tube Babies, Girls School, Piruleta de Hormigón eta Leño.

Gero eta ezagunagoak zareten arren, badirudi hasierako jarraitzaileak zuegandik aldentzen ari direla.

Musikan, beste arlo askotan gertatzen den bezalaxe, gustoa aldatu egiten dira.

Gaur gauza bat atsegin duzu eta bihar, ordea, beste bat. Zergatik? Ez dakit, baina gu geu ere aldatzen garela agian.

Euskara soilik bertsoak egiteko erabili duzue?

Gaur arte horrela gertatu da. Euskaraz egin ditugun abesti biak bertsoak izan dira eta poztu gara. Bertsoirik egingo ez bagenu, segurasko, euskaraz ez genuke ezer izango. Euskaraz sortzen hasteko abiapuntua izan daiteke bertsoak euskaraz egitearena. Noiz? Batek daki.

Zer da "Diversiones"?

Dibertsio hutsa, jakina! Betidanik gustokoak izan ditugun rock taldeei eginda-

gizakion eraginez, animalia askok pairatu behar izaten duen torturaren kontrako salaketa da. Horixe guztia duzue "Diversiones" diskoa.

Disko honetara talde klasikoak, oso ezagunak ez direnak eta inoiz entzun ez ditugunak ere ekarri dituzue: zein erizpide erabili duzue bederatzia abestiak aukeratzeko?

Disko hau ez da abesti edo talde klasiko batzuen berrikuspina bakarrik. Aspalditik genbiltzan ideia horrekin buelta eta buelta, baina orain arte inork ez zuen esan: "E, txo! eseri gaitzen eta berba egin dezagun honetaz". Ez genuen astirik horretan aritzeko. Hala eta guztiz ere, derrepentean eta luze pentsatu gabe, hemengo eta kanpoko abesti batzuk hartu, gure

euskaldun izan nahi dugulako

**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



Zurekin 600.000 irakasle izango gara
2.300.000 ikasle euskalduntzeko

izena eman  n!

Jose		
Peru 8	Mardones 8	Arana 30
22 60 50	26 35 40	25 24 00



ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz



erara moldatu eta lokalean jotzen hasi ginen. Abestien jatorrizko egitura errespetatu egin dugula uste dugu. Gure ustez, abestiak ezagunak izatea ez da garrantzitsuena. Abestiak onak badira gainontzeko guztiak ez du inongo garrantzirik.

Zuen aurreneko diskan Eskoriatza taldearen abesti bat jo zenuten. Oraingo honetan Piruleta de Hormigón-en beste bat berreskuratu duzue. Horrelakoan abestiak aukeratzean zein da zuen helburua? Talde ezezagunak oroitzea, errei-bindikatzea, laguntzea...

Zuk aipatutako hiru gauzek badute zerikusi handia geure erabaki honetan: errebindikazioak, oroitza-penak... eta, gainera, ze arrai! Primeran pasatzen

dugu kanta hauek egiten. Hiru arrazoi horiek dira besteen abestiak gogoz jotzera bultzatzen gaituztenak eta, horregatik, gureak bailiran sentitzen ditugu. Eta gure lanak bertsionetatutako taldea poztea lortuz gero, ondo baino hobeto! Benetan, horrela gertatzen bada, gu poztu egiten gara

Zuek sortutako "Mil A Gritos" argitaletxeak beste talde batzuen lanak ere laster kaleratuko ditu, ezta?

Horixe da betidanik gogoan izan dugun asmoa. 96. urtearen hasieran erabaki genuen beste talde batzuen lanak ere produzitzea, nahiz eta gure inguru hurbilekoak ez izan. Esaterako, hau irakurtzen duzuenarako Lizarrako Flitter taldearen "Cuidada-

no Masoquista" izeneko lana dendetan egongo da. Gainera, une honetan, estudioetatik atera berria den Salvate si Puedes talde gazteiztarrarekin gaude harremanetan. Aspalditik daude musika munduan eta, berehala, izango dute diskoa salgai. Eta beste zenbait proiektu ere baditugu.

"Diversiones" diskoaren mezua "Mötzcato" (adarkatu!) abestiak azaltzen du. Nori eskeintzen diozue?

Zezenlariei, batez ere, eta baita zezenketen kultura bultzatzen eta babesten duten guztiei ere. Animalien tortura (animalia esaten dugunean gizakia ere hor sartu behar da) onartzen duten pertsona eta komunikabide guztiei eskaintzen diegu, beraz.

Nahiko zenukete beste talderen batek zuen abestiak bertsionatzea?

Bai, gainera gure estiloko musika egiten ez duen taldea izango balitz, askoz hobeto. Modu horretan SAREN kantak beste estilo batean entzuteko aukera izango genuke. Horixe da, hain zuzen, guk egiten duguna. Imajina ezazu "Nos vimos en Berlín" bezalako abesti bat, La Polla-k joko balu: izugarria litzateke!

Txabi

Arnal Gil

AXULAR aholkulari

Paul Bowles


- "Music". BMG-ARIOLA 96

- "Un americano en París". DIVERDI 96

- "Sonata para oboe y clarinete, nocturnos, miniaturas". DIVERDI 96

Allen Ginsberg

- "The Ballad of the



Skeletons".

MERCURY 96

*Bilduma

- "Like a girl, I want to keep coming".

VISIONARY C. Ltd. 96

Mugarik gabe

Musikari buruzko zutabe berri honetako estreinako artikulua honi paradoxa batez eman nahi diogu hasiera: oraingo honetan idazleez hitz egingo dugu. Artearen historian zehar askotxo dira beren lan-esparrua utzi eta beste alde bat jorratzen hasi direnak, nahiz eta eremu bakar batean egindako lanagatik ezagunak izan. Batzuetan, hala ere, idazleen eta musikarien arteko muga erraz urratzen da. Musika egiten duten hiru idazle aurkeztuko ditugu jarraian:

Ginsberg (New Jersey, 1926), How (Ulua) izeneko olerki famatuaren egilea, "The Ballad of the Skeletons" diskoaren konpositorea izan zen, eta gainera, bertan abesten agertu zen. Disko horretan laguntzaile batzuk izan zituen: Philip Glass, Paul McCartney eta Lenny Kaye baxujolea (diskoaren ekoizlea). "The Ballad of the Skeletons" diskoaren hiru bertsio dira, guztiak ere Hiru Yamagatak diseinatutako CD gazezur batean bildurik. Hitz batean esanda, 25 bat minutuko harribitxi txikia duzue CD hori.

Gure bigarren gonbidatua W. S. Burroughs da (St. Louis, 1914). "Like a girl, I want you to keep coming" bilduman parte hartu du New Order-ekin, David Byrneekin eta Debbie Harryekin. Burroughsek bere ahots urratua, whisky zurrutadek etena, besterik ez du behar zortzi minutuz atseginarekin atseginez aritzeko, hots, "Just say no to drug hysteria (excerpt), Dead souls" bakarriketak dirauen bitartean. Bakarriketa horretan ez dago musika soilik, ezta hitzak soilik ere.

Paul Bowlesek zenbait iturritatik edaten du. Afrikako iparraldean egindako egonaldi luzeen ondorioz eleberri arrakastatsuak sortu ziren, baita arestian grabatuak eta CD batean editatuak izan diren hainbat partitura ere. Musika klasikoa da eta musika-tresna klasikoak darabilzki hiru grabaketetan: "Un americano en París", "Sonata para oboe y clarinete, nocturnos y miniaturas" eta "Music" izen orokorra daukana.

Genero bakoitzeko garbizaleek esango dute asmatu duten ala ez, baina hauxe da oraingo honetan hartu beharreko ikasgaia: gauzak esateko modu asko daude, eta horretarako hitza, musika edo isiltasuna erabil daiteke.

KORKOZEN-97.

★ jo eta ke
**TXAPELARRI
TABERNA**
KUTXI
kalean

**BAR
KLAKÉ**
KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ

iroldak

Maki Berruet

ALAVESEKO JOKALARIA

Gora egingo dugu sailkapenean

Urtebete egin dut Gasteizen eta aurtengoa nire bigarren denboraldia da Alaves taldean. Gasteiz oso ondo antolatuta dagoen eta goraka doan hiri berri bat dela iruditzen zait. Komunikazio ona du beste hiriekin, bai autobusez, bai trenez eta baita hegazkinez ere. Hiri barruan ez duzu autorik behar, oinez edo autobusez ondo iristen zara toki guztietara eta, gainera, tren eta autobus geltokia hiriaren erdian daude. Horrez gain, entzun dut alkateak metroa jarri nahi duela, Bilbon bezala...

Kirolari dagokionez, goi mailako bi talde daukazue punta-puntan: Alaves eta Baskonia. Biak ala biak zale eta bazkide ugariekin. Horiez gain, bestak beste, hor daude rugbi taldea, hockey taldea eta ezin ahaz dezakegu Aurrera taldea ere. A zer nolako denboraldia Blas Ziarretaren mutilena!

Aurten gure taldea ez doa guk nahi bezala. Momentu honetan egoera kaskarrean gaude, entranatzaile berria estreinatu dugu eta ea gauzak hobera



egiten duten. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, Txutxirekin Alaves bigarren B mailatik, bigarren A mailara igo zela. Orain, bultzada berezia behar zela eta Boronat jarri dute bere lekuan. Badakizue, horrelako kasuetan, soka beti toki beretik hausten da, hori da errazena eta. Nire ustez, zaletuen, prentsaren eta direktiboen laguntzarekin jokalaria Alaves egoera honetatik ateratzeko gai gara eta, azkenean, denboraldia posizio on batean amaituko dugula uste dut.

Zaletuei zera esan nahi dizuet: zalantzarik gabe, bigarren mailako afiziorik onena, gaztea eta jatorra, daukagu Gasteizen. Ni oso gustora nago hemen, Euskal Herrian eta etxetik hurbil, eta nire asmoa urte askoz bertan geratzea da eta Deportivo lehen mailan ikustea.

Bukatzeo ohartxo bat. Oso jende gutxi entzuten dut kalean euskaraz hitz egiten eta nahiko nuke euskara gehiago entzutea. Ondo segi eta beste bat arte. Agur.

Berri motzak...

MENDIZORROTZAN JAUN ETA JABE

Azken egunotan ikusi dugun legez, Deportivo Alaveseko administrazio kontseilua biltzen denean, Gonzalo Anton bere buruarekin bakarrik biltzen da. Diru jaunak agintzen du puntako kirolean egun eta, horren ondorioz, ostalaritzako enpresaria dugu jaun ta jabe Mendizorrotzan. Errua guztiona da, arabarrok taldearen akzioak erosteko aukera izan baikenuen. Orain ez dago atzera jotzerik eta Deportivo Alaves Mirandakoaren esku dugu.

FRAN MURCIA BADALONAN


Orain hilabete Baskoniak Fran Murcia kalera bota zuen. Gasteizetik alde egin eta lau egunetan Errege Kopako txapeliduna zen. Badalonako Joventuten pozik ari da Fran, minutu franko, saskiratze ederrak, errebote ugari... Baskoniaren aurka jokatzeko, Gasteizera etorri zenean, berriz, ederra egin zigun Araba Pabilioian: 17 puntu, erreboteak, txapelak... eskerrak ez zuela gurean jokatzeko balio. Hobe ez ikustea play-offetan berriz!

MARTIN FIZ HASERRE

Atlantako Olinpiadetan laugarrena izan ondoren, Martin Fiz haserre omen dago Arabako komunikabideekin. Ez omen dugu berarekin ondo jokatu. Ez gatoz bat iritzi horrekin. Komunikabideok eta arabarrok gure kirolariekin bat egiten dugula behin eta berriz erakutsi dugu azken urteotan.

GEU GASTEIZ ESTATU BATUETAN

Argazkian duzuen laguna Antxon Iturbe da. Antxon eta Iker bere anaia Estatu Batuetan ari dira ikasten eta saskibaloian jokatzeko dute. Unibertsitateko Liga gogorrean lan ederra betetzen ari diren gasteiztar hauek NBA dute amets. Hori lortuko ez balute, ordea, guk Baskonian gustora hartuko genituzke. Bitartean, argazkian ikus daitekeen bezala, Ipar Amerikako Merylan eta Hego Carolinan jaso eta irakurtzen dute GEU GASTEIZ.



JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

HOBEBEKI

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

- koltxoiak • somierrak •
- kanapeak • ohe artikulatuak •
- latex • futton • ipar edredoak •
- neurritara egindako armairuak •

Pío XII.a kalea, 7 behe
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ

Almudena Cid

guz gasteiz
Kirolak

Sydney da nire xede nagusiena

7 urte zituenan, bere amak gimnasia erritmikoa egitera apuntatu zuen Arantzabela Ikastolan. Almudenari gustatu egin zitzaion eta gainera malgutasun handiko neska zen. Horretarako gaitasun handia zeukala ikusitakoan 'Arabatzxo' taldera eraman zuten, handik 'Aurrera' klubera pasatu zen eta 1994an Espainiako selekzioak hartu zuen.



13 URTEREKIN dagoeneko Espainiako txapela, Munduko Txapelketako 11. eta Joko Olinpikoetako 9. postuak eskuratu ditu. Gabonak ezkerotik gogor ari da entrenatzen. Ariketa berriak prestatzeari ekin dio eta "prestatetaren unerik gogorrenak" dira hauek.

Hurrengo lehiaketa Europako Txapelketa izango da, udaberrian. Ondoren, Munduko Txapelketa urte amaieran. Eta gutxi balitz, jadanik, Sydney-ko Joko Olinpikoei begira jarria da.

Nola igaro zenituen Gabonak?

Gabonetan primeran pasatu nituen. Ez dago etxean egotea bezalakorik! Abenduaren 24tik urtarrilak 3ra arte oporrak izan ditugu.

Zure dieta aldatu duzu egun horietan?

Egun hauetan zehar nahi izan dudana jan dut. Ogia patearekin, adibidez, asko jan dut. Kanpoan nagoenean ezin dut horrelakorik jan, ogirik ez dugu probatzen eta. Horrez gain, polboroiak eta Gabonetako janari tipikoak ere jan ditut.

Zer egin zenuen Gabonzaharrean?

Gabonzaharrean auzoko lagunekin goizaldera arte kalean ibili nintzen.

Zure etxera Olentzaro edo Errege Magoak etortzen dira?

Ekipoan sartu nintzenetik Olentzarok oparitzen dizkit niri opariak, Errege Egunean dagoeneko entrenatzen

nagoelako. Familiako beste guztiek, ordea, Errege Egunean jasotzen dituzte beraien opariak. Dena den, Olentzaro egunean zerbait ere tokatzen zaie.

Zer ekarri dizu zuri?

Jertse bat, agenda bat, Oskorriren 25. urteurrenko CD-a, kolonia bat.

Gogorra izan al da klase eta entrenamenduetara itzultzea?

Itzulera beti da gogorra. Baina aldi berean gogo handiz etortzen zara ariketa berriak egiteko eta urte berriari hasiera emateko. Urtarrilaren 3an itzuli ginen hona eta kontzentratu egon gara 13ra bitartean. Gabonetako oporraldia egin eta gero, berriro formarik onena hartzeko kontzentrazioa egiten da, baita

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuperaturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

artisans lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu
Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz



aurten sartu diren elementu berriak ikasten hasteko ere.

Zein elementu berri?

Kodea aldatu egin dute eta dena berritu behar izan dugu. Joko Olinpikoak pasa eta gero Nazioarteko Federazioak kodea aldatzen du. Oraingo berri hau Sydney-ko Olinpiadak arte izango da indarrean.

Zertan datza kode berri hau?

Kode berriarekin dena zailagoa da. Orain ez daukazu elementuen arteko elkarloturarako tontakeria txiki horiek asmatzeko astirik. Ariketa osoa arriskuz beterikoa da, jaurtiketa gutxiago egon arren. Aparatu-teknika baino gehiago gorputz-teknika hobea eskatzen da.

Zure orain arteko ariketa goitik behera aldatu behar duzu?

Soka eta zintan musika berarekin jarraituko dut eta ariketako egitura Atlantakoaren berdintsua izango da. Hala ere, gauza asko aldatu beharko ditut kode berrira egokitzeko. Besteak beste, ekilibrioak bira gehiagorekin egin behar ditut ... dena zailtasun handiagorekin.

Noizko izan behar dituzu prest ariketa berriak?

Maiatzean Europako Txapelketa izango da. Gero, iraila



edo urria partean, Munduko Txapelketa. Orain, behin eta berriz errepikatzen ari gara ariketa guztiak. Gaur, adibidez, (urtarrilak 15) aro ariketa berria montatzen amaitu dut. Nahiko zaila da eta hainbat gauza landu behar ditut. Gero musikaren erritmoa hartu beharko dut. Gutxienez hilabete behar dut ariketa gutxi gora-behera ateratzeko. Lehendabiziko egunean ez da ondo ateratzen.

Sydneyko Joko Olinpikoei ere begira zaudete?

Bai, Sydney da nire xede nagusia. Hango Olinpiadetan parte hartu eta postu on bat eskuratu nahi dut. Ziuraski han utziko diot kompetitzaari. Ordurako hogeitun urte izango ditut eta adin horren inguruan

uzten da gimnasia erritmikoa. Niretzat ideala izango litzateke Sydney ondo erretriratzeari. Beharbada, beste urte betez jarrai dezaket ondo pasatzearen. Gero ez dakit zer egingo dudan baina gimnasiaren munduan aritu nahiko nuke.

Zeintzuk dira zure helburuak datozen txapelketen aurrean?

Europako Txapelketari begira, nik uste aukera daukadala zortzi onenen artean egiteko (iaz 12. egin nuen). Aurten gimnasta batzuk utzi egin dute eta gainera nik esperientzia gehiago daukat. Joko Olinpikoak pasatu eta gero gauzak hobeto aterako zaizkidala espero dut. Banakako lehiaketan parte hartzerakoan esperientziak eta izenak badute zerikusirik. Huts egiten baduzu, huts egin duzu eta kitto. Akabo aukera! Baina ariketa ondo eginez gero, eta ezaguna bazara, dezimaren bat gehiago lor dezakezu. Beste abiapuntu batetik hasten duzu lehiaketa.

Nolako da zure entrenamendu eta ikasketa programa?

7:45tan altxatzen gara, jantzi eta ondoren gosalduta egiten dugu. 9:00ak aldera gure autobusean eskolara abiatzen gara eta 9:30etan klaseak hasten dira. Han ordu biak arte egoten gara eta ondoren berriro autobusez erresistentziara bueltatzen gara. Arratsaldeko lauretan entrenatzen hasi eta gaueko hamarrak arte aritzen gara, gutxi gora-behera.

Eta aste buruetan?

Larunbatetan goiz eta arratsaldean entrenatzen dugu eta igandeak libre ditugu. Egun hauetan igande goizetan ere lan egiten dugu baina normalean larunbateko 21:00etatik astelehen goizera arte libre daukagu. Gurasoak bisitatzen ematorritz gero, beraiekin eman dezakezu denbora hori guztia.

Kasteko denborarik aurkitzen al duzu?

geu gasteiz

"Kode berrira egokitzeko, besteak beste, ekilibrioak bira gehiagorekin egin behar ditut"

geu gasteiz

HEGOA
KLS

PSIKOLOGIA ETA LOGOPEDIA
ZENTRUA

- ✓ HELDUEN ETA HAUREN PSIKOLOGIA
- ✓ HIZKUNTZ ARAZOAK
- ✓ AHOTS ARAZOAK
- ✓ IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Gasteiz Hiribidea 46 - 1. esk
220136 GASTEIZ

LA RIOJANA

jatetxea

on egin! EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

Oso denbora gutxi daukagu. Eskolatik itzultzean 14:00-etatik 16:00retara dagoen tarte hori aprobetxatu behar dugu etxekolanak egiteko eta entrenamendua amaitutakoan, ikasteari ekiten diogu goizeko ordu bata arte edo. Hurrengo goizean berriro goiz altxatu behar dugunez, nekatuta bukatzen dugu astea eta aste burua noiz iritsiko irrikitan egoten gara.

Zein da gustokoen duzun irakasgaia?

Beharbada marraztea da gehien gustatzen zaidana. Eta, behin trankiloa hartuz gero, baita fisika ere.

Gimnasia erritmikora itzul gaitzen. Zein da begikoen duzun aparatua?

Betidanik asko gustatu zaidan aparatua aroa da. Baina selekzioarekin eman ditudan bi urteetan ez zegoen aro ariketak prestatzerik, pilotak hartuta baitzeukan honen tokia eta ordutik oso begikoa dut pilota ere. Aurten, pilota kendu egin dute eta berriro ere aroa egongo da. Hau guztia Nazioarteko Federazioak aginduta. Egia esanda, ez dago gustokoa ez dudan aparaturik. Soka, adibidez, oso dinamikoa da eta oso nekatuta banago gutxien egin nahi dudan aparatua da. Hotz handiko egunetan, berriz, ez ditut mazak egin nahi izaten, eskuak hotzak izaten ditudalako eta mazak

jasotzerakoan min egiten didatelako. Baina, orokorrean, ez diot maniarik inolako aparatuari.

Gimnasia eskolen bat bereziki miresten al duzu?

Bielorrusiako eskola asko gustatzen zait teknika korporala asko lantzen

geu gasteiz

"Bielorrusiako eskola asko gustatzen zait, teknika korporala asko lantzen baitute"

geu gasteiz

dutelako. Vitrichenko Ukraniarra ere oso gustokoa dut oso zuzena delako. Bulgariako eskolatik, aparailuen erabilera eta baita ariketaren kontzepzioa bera ere hartuko nuke. Berez, partaide bakoitzetik zerbait hartuko nuke. Beti gabiltza bata besteari begira, baina inoiz

ere ez bestea kopiatzeko. Bakoitzak bere estiloa dauka eta besteetan fijatzen gara norberaren ezaugarriak hobetu ahal izateko. Niri asko gustatzen zait besteak konpetitzen ikustea.

Beste herrialdeetako gimnastekin harremanik baduzu?

Beti dituzu harremanak beste gimnastekin. Sasiingelea erabiliz hitz egiten dugu eta bata edo bestearekin nolabaiteko harremana izatea lortzen da. Frantziarrek, adibidez, nahiko ondo ulertzen dute gaztelera. Heldua egiten zaren neurrian jendea gehiago ezagutzen duzu, azken finean ia beti partehartzaile berberak baikara. Nahiz eta gero lehiari aritu behar izan, gure arteko harremanak onak dira.

Kompetizioa alde batera utzita, idaiatzea gustatzen al zaizu?

Beti gustatu zait bidaiatzea, gauza ugari ikus ditzakezulako. Badira oso aberatsak diren herrialdeak eta oso txiroak direnak. Horrelako kontraste handiak ikusten dira. Badira, bestalde, atseginak ez diren hainbat gauza ere. Baina niri herrialde ezberdinak ezagutzea gustatzen zait.

Edu Lopez de Luzuriaga



HEGOALDE

euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!



TABERNA

San Antonio, 39



Lorea Zurimendi

aro berria... ipuin berria



X edorta sanz

Ipuinek askotan mundu liluragarri eta magikoak aurkezten dizkigute.

Mundu horietan printzesak, herensugeak, lamiak eta antzeko beste pertsonaia ugari elkarrekin bizi dira.

Gizaki onak beti garaile ateratzen diren irudimenaren mundu horretara bidali ditugu gure mostrongotxo bereziak aste baterako. Horrela euskaraz irakurri eta ikasten duten bitartean era ezin hobean egingo dute: mundu fantastiko batean. Zein ipuinetan murgilduko dira buru-belarri mostrongotxo handi havek?

Aste batez "Pulgarcito" bilakatzea ondo legoke. Leku guztietan ibiliko nintzateke, inor konturatu gabe. Jendeari buruz gauza asko jakingo nituzke eta, garrantzitsuena, inork ez ninduke kalterik egingo.

Maitte, 24 urte

Kontakizun bat aukeratzekotan, Munduari itzulua 80 egunetan ipuina bisitzea ondo egongo litzateke. Edozein pertsonaia izango nintzateke, asko

gustatzen baitzait bidaiatzea.

Belen, 34 urte

Mari Errauskin

kontakizuna aukeratu dut, oso ipuin polita eta xarmagarria baita. Emakume honek lan handia egiten badu ere, amaieran izugarritzko zortea dauka.

Maitte, 30 urte

"Alicia en el País de las Maravillas" ipuina asko gustatzen zait. Istorio honetan

murgilduz gero, leku asko bisitatuko nituzke eta jende ezberdina ezagutuko nuke.

Patricia, 23 urte

"Pulgarcito" gustatzen zait. Nahiz eta txikia izan, erraldoi bat menperatu zuen. Bere azkartasunarekin bere familiaren egoera hobetzea lortu zuen. Ekintza miresgarria benetan!

Sara, 32 urte

Nire ustean, egun baterako

soilik ikustezina bihurtzea primeran egongo litzateke. Edozein lekutara sartuko nintzateke eta jende askoren iritziak ezagutuko nituzke. Auskalo zenbat gauza harrigarriez enteratuko nintzateke!

Blanca, 28 urte

Gau batez, "Loti ederra" izatea gustatuko litzaidake. Emakume eder horretan bilakatuko banintz, denbora oro lo egiten igaroko nuke. Beraz, ez nintzateke goiz esnatuko

TESTU LIBURUAK
eskatu zure testu liburuak
eta ez estutu gero

Koldo Mitxelena • deskontu bereziak

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

MIKO
izozkiak

eus-kaltegiara joateko. Hori gutxi balitz, ehun urteko atsedeneren ostean, asko bidaiatuko nuke. Eta jarraian, "Erpurutxo" bihurtuko nintzateke, bere oinetako haundiekin munduko ertz guztiak bisitatzeko.

Edurne, 23 urte

Betidanik

kontakizunetako magoak, aztiak gustatu izan zaizkit. Esate baterako, Arturo Erregearen kondairetan, Merlin nuen gogokoena. Pertsonaia honek erregeari beti aholku onak ematen zizkion eta ondorioz erregeak arazoak konpontzea lortzen zuen. Errealitatean horrelako gizabanakorik dagoenik ez dut uste. Baina honelako ipuinei esker behar bada gure ametsak

egia bihur daitezke edo, behintzat, apurtxo batean egiazkoak direla pentsa dezakegu

Fernando, 25 urte

Edozein kontakizunean, lamia izatea gustatuko litzaidake. Ez iezaidazue galdetu aukeraketaren arrazoi zehatza. Beharbada, halako giroa (sorginak, dragoiak, ...etabar) betidanik oso erakargarria iruditu zaidalako, hain zuzen. Mundu magikoak, lainopean gertatutakoak, edo azalpen logiko bat gabe gauzak gerta daitezkeela pentsatzeak txunditzen nau.

Teretxu, 36 urte

"Alicia en el País de las Maravillas" ipuinaren



protagonista izatea primeran egongo litzateke. Denbora geldituko nuke, nahi dudana guztia egiteko. Amestutako mundu liluragarri batean biziko nintzateke eta han, non-nahi, aurkitu ahal izango genituzke dragoiak, epot magikoak, abere hiztunak, kolore guztietako hegaztiak, jaki exotikoak, e.a. Kuasimodorekin gosaldu, Txanogorritsurekin mendira joan, eta sorginekin parrandan ibiliko nintzateke.

Isabel, 22 urte



geu gasteiz

haurrak

arCEUzki- matoia



IXONE HERRERO OTXOA

2 URTE

ENES AHILLIZINEMAK



MIKELDI
ZINEMETARA
JOATEKO
BI SARREREN IRABAZLEA.

Zuk ere zorte bera eduki nahi baduzu bidali zure argazkirik onena helbide honetara:

GEU GASTEIZ ALDIZKARIA
PEDRO ASUA, 2 3.a
91. BULEGOA

ZAHAR SENDO ZINDO

GASTEIZKO BATZOKIAK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Oinoharrak

Itzi Garna

geu gasteiz

Moden balioa
pragmatikoa da
eta moden
aldaketa beren
popularitatearen
menpe dago

geu gasteiz

Ideiak erabili egiten dira. Lan-tresnen antzera, zerbitzu emateko moduan antolatzen ditugu eta, horrela, gure "usadio eta ohituretan" sartzen dira. Baina gizakiok ohiturak aldatu ohi ditugu: gaur arrunta eta erabilgarriena dena bihar desegokia eta ohiz kanpokoa izan daiteke. Hau arriskutsua da ideiak erabiltzen dituzten gizakientzat. Ideiak ez baitira geldo eta bizigabeak, gauzak bezala, bizidunak baizik, eta, horregatik, ohiko ideiak bazterrean uztea sende baten heriotzaren parekoa da ideia horien erabiltzaileentzat.

Egia da zenbait ideia zahartu egiten direla. Horrelakoetan, galkortasuna eta ordezkapena zintzoki -eta batzuetan pozez ere- onartzen ditugu: aldaketa, ideien bizitzaren adierazgarria da. Ideien erabilpena eta erabilpen-eza ekonomia biologikoaren lege baten menpe dago: berriari lekua emateko, zaharra zokoratu behar da. Horrela gertatzen da idealak adierazten dituzten ideiekin. Ideia horiek dira, alegia, galkor eta iragankorrenak, egokiera edo oportunitatearen menpe bizi baitira, eta egokiera iraunkorra da. Balore-ideiak eta proiektu eta aspirazio amankomunen atzean dauden ideiak ere egokieraren araberakoak

dira, hau da, aldakorrak.

Izan ere, "usadio eta ohituretan" sartutako hainbat ideiek izaera ematen diote komunitateari. Ohikoak eta egunerokoak bizimolde bat tajutzen du eta -barruko konsistentzia eta sendotasunaren ezaren aurrean- "imitazio sozialerako" joera nagusitzen da orokorrean. Iheskortasun horregatik, bizimolde baten indarraldiari moda esaten zaio, hots, modua: jarduera, hizkera, irizpide eta, azken buruan, bizikera berekoak izatea.

Moden balioa pragmatikoa da eta moden aldaketa beren popularitatearen menpe dago. Hortaz, modalitatea prozesu etena da: moda berria ezartzerakoan aurreko modarekin apurtu nahi dugu. Horiek horrela, moda, apokaliptikoa eta hilgarria da. Kultura, aldiz, unibertuala da, hau da, gizon-emakume guztion ondarea da eta baliagarria izan behar du beti eta guztiontzat. Ondorioz, geroko bizitza zaindu eta babesteko, eta pentsamenduaren eboluzioari bidea emateko, ezinbestekoa da "denbora/espazioa" kontzeptu zentzu zabalean (lehenaldia, orainaldia, etorkizuna) errespetatzea.

Bestela esanda. Gure aldizkariak aldi berriari ekin behar dio. Baina aldi berri guztiek zerbaiti jarraitzen diote, etorkizuna iraganaldian abiatzen baita. Horregatik, lehenaldiko muga eta baldintzapen horien jakitun izan behar dugu moden murrizketaz ez erortzeko.

Izan ere, gure aldizkaria euskal kulturaren adierazgarria da. Eta, kultura, unibertuala den neurrian, ezin da moden menpe egon. Kulturak, hain zuzen ere, askatasuna ematen dio gizakiari menpekotasun guztietatik libre utziz. Horretarako, bidezkoa dauka, ordea, gizartearen kontzientzia berraktibatzea, oraingoan gure aldizkariaren gertatu den bezala. Berraktibatzea, besterik gabe, ez da, ez ona, ez txarra, baina hazkuntzarako bide ematen du ideiak eta moduak aldatzen dituelako. Baina berraktibatze horrek konpromiso berria eskatzen du. Horratio, aldizkaria egiten dugun guztiok, ahobatez, noraino konprometitzen garen funtsezkoa izango da aldi berri hori benetan emankorra eta berria izan dadin.



kide

APAINDURA Cereas Bajas, 27 Tfnoa. 14 41 95 Gasteiz

TXERO-KI

TXEROKAREN ZILANTAK

BAI, BAI, ... ALDIZKARIA
BERRITU, KALITATEZKO MAKETA-
ZIOA, ATAL BEREZIAK... BAINA
TXEROKIK ATZERATUTAKO SOLDATAK
JASO

ARTE, EZ DA BERE
ORRIALDETIK
MUGITUKO!



inigo sarasola

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	
	ZERBITZU OROKORRAK	Espainia plaza, z/g	16 13 08	
	GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	FUNTZIO PUBLIKOA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
	ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA	Espainia plaza, z/g	16 11 88	
	ERROLDA	Espainia plaza, z/g	16 11 06	
	BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68
		ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33
INGURUGIROA		Dato, 11	16 11 20	
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIO-RAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99	
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16	
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48	
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60	
	ARIZNABARRA	ARIZNABARRA, 19	13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA)		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ-PENERAKO BULEGOA			16 36 91	



Z E
E L
R B
B I
I D
T U
Z N
U A
K